

zutabe



1958 / 2018

IRAKURRI ETA ZABALDU



Euskadi Ta Askatasuna
 Nazio Askapenerako
 Euskal Erakunde Sozialista
 Iraultzailearen aldizkaria

114. zenbakia. Azken zenbakia
 2018ko apirila

3 / Sarrera

4 / Eztabaida 2017/2018. Ondorioak

14 / Lurraldetasuna

18 / Ekinbide armatua

26 / Eusko gudariei. Adierazpena

28 / Eragindako kalteaz. Adierazpena

30 / Etxekoei eta lagunei





60 urteko ziklo politiko eta historiko erabakigarria

60 urteko ziklo politiko eta historiko bat egin dugu. Sei hamarkada hauek berebiziko garrantzia izan dute Euskal Herriarentzat. Izan ere, zikloaz mintzo garenean, ez gara soilik Erakundearen historiaz ari. Euskal Herriko historia garaikideaz ari gara, aske izateko borrokatu eta borrokatzen ari den herriaren historia hurbilaz.

Erakundea 60 urteko historiaren zati horren bidaide izan da eta, zuzenean edo zeharka, parte hartu du jazo diren gertakari esanguratsu gehienetan, baita aldaketa nagusietan eragin ere. Azken batean, Erakundea antolakunde bat izateaz harago, fenomeno zabal bat ere izan da. Bere altzoan, nazio eta langile kontzientzia berpiztu, egitasmo politiko bat osatu eta kultura politiko eta balore etiko jakinak hedatu dira gure herrian.

Erakundearen zikloa konfrontazio armatuarekin lotu da maiz. Hori baino gehiago da, baina hori ere bada. Erakundeak borroka armatua Euskal Herria askatzeko tresna gisa hautatu zuenean, zapalkuntzari eta ordura arte aldebakarrekoa zen biolentziari erantzun zion, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin izan duen enegarren konfrontazio aldiari hasiera emanez. Dendenak mendetan luzatzen den gatazka politiko baten adierazle dira, aske izan nahi duen herriari bide demokratikoak ukatu edota zapalkuntza muturrera eramatearen ondorio, alegia.

Baina konfrontazioa armen bidez gauzatzeari bide bat ere bada. Erakundeak, zilegi izateaz gainera, beharrezkoa ere bazela

ebatzi zuen eta bost hamarkadaz eutsi dio jarrera horri. Bide horrek Euskal Herria askatzeko eman zezakeen guztia emana zuela eta tresna eta estrategia eraginkorragoak egon zitezkeela hausnartu duenean, borroka armatua erabiltzeari utzi dio. Bere helburuak bete gabe, azpimarratzen dute batzuek; bere helburuen lorpenera hurbiltzeko, nabarmentzen du Erakundeak, bizi-bizi eta anbizio izpirik galdu gabe irauten duen askapen borrokaren zikloan.

Bere hautua izan den heinean, Erakundeak bere gain hartzen du bere ardura. Konfrontazio armatuak egoera gogortu du, sufrimendua areagotu, edozein gerra eta gatazka armatutan gertatzen den gisara. Batzuek zikloaren irakurketa horretara mugatu nahi dute. Sufrimendura, borroka armatuak eragindako kalteetara; Erakundearen borroka, eta askapen borroka oro har, bidegabe eta kaltegarritzat jotzeko. Erakundea sortu aurretik zegoen eta Erakundearen zikloa amaitu denean irauten duen zapalkuntzak Euskal Herriari eta euskal herritarrei eragiten dien sufrimendua eta kaltea ezkutatu egiten dute. Zapalkuntzari aurre egiteko orduan eta Euskal Herriaren garapenean Erakundeak izandako eragina ere estali nahi dute.

Euskadi Ta Askatasunaren eztabaida 2017-2018

Ondorio txostena

Txosten honek ETAk kidego osoarekin 2017-2018 urteetan burutu duen eztabaida prozesuaren ondorioak jasotzen ditu. Hau da eztabaida prozesuak utzi duen txosten bakarra, kidegoak Zuzendaritza Batzordeak aurkeztutako proposamena ontzat jo ostean.

Ondorio Txosten honetan, burutu dugun hausnarketa estrategikoaren zergatiak eta, nazio askapen mugimenduaren berrantolaketa baitan, ETAREN ziklo eta misio historikoari amaiera emateko erabakiaren arrazoiak azalduko dira.

Prozeduran denbora hartu dugu, erabakian denon parte-hartzea bermatu ahal izateko eta egin beharreko urratsa sendotasunez eta babes zabalarekin egiteko. Hilabetetako eztabaida prozesua burutu ostean, kidegoaren gehiengo handi batek ETAREN ibilbideari amaiera emateko erabakiaren alde egin du.

Hausnarketa ausarta da egin duguna eta bere iturburua zein irismena politikoak dira, ETAREN jarduera eta hausnarketa guztiak beti izan diren bezala. Euskal Herriaren askapen nazionalaren eta sozialaren alde ETAK eta bere kidegoak erakutsi duten leialtasunari helduta hartu dugu Erakundeari bukaera emango dion behin-betiko erabakia.

1.- ETAREN ibilbide historikoa eta ekarpena

Erakundearen zikloaren amaieran gauden honetan, hartu dugun erabakiaren esangura historikoa ongi ulertzeko beharrezkoa da atzera begirako ariketa egitea, gure ibilbide osoaren zertzelada batzuk emanez.

1.1.- ETAREN historian barrena

Frankismoaren zampaketak euskal jendartea desartikulatuta eta proiekturik gabe utzia zuenean, gazte batzuek, PNVren gidaritzaren norabidearekin kritiko, garaiko egoeraren irakurketa zorrotza egin zuten, Euskal Herria, bere-bereak zituen ezaugarriak galduz, hiltzen ari zela ondorioztatuz. Ekinbide sendoen ezean, frankismoak emango zion amaiera mendetako etnozidioari.

Ikuspegi sozial aurrerazalez, ordura

artekoarekiko haustura planteatu zuten, Euskal Herria askatzeko estrategia berri bat taxutzen hasiz. Nazioarteko deskolonizazio eta askapen borroken eragin handia berenganatuz, Euskal Herriaren independentzia helburu, erakunde ezkertiar bat eratu zuten: Euskadi Ta Askatasuna erakundea.

ETAREN sorrerak aldi berri bat ireki eta euskal jendartearen kontzientzia hartzean iraultza ekarri zuen. Bere borroka ildoaren bidez, lotura egin zuen gerra galdu zuten ondorengo belaunaldiekin bezala nazioartean nagusi ziren ildo berritzaileekin. Euskal Herria zanpatzen zuen Espainiako Estatuaren aurkako borrokari ekitearekin batera, euskal jendartea antolatzeari ekin zion, independentzia eta sozialismoa lortzeko borroka egituratzeari, herri oso bat baitzen arloz arlo berregituratu eta asmatu behar zena. Euskadi Ta Askatasuna Euskal Herriaren askatasun nahiaren ikur bihurtu zen.

ETAREN borroka frankismoaren aurkako izan zen baina ez horregatik borroka antifrankista hutsa. Francorengandik eratorritako monarkia parlamentarioaren espainiar “demokrazian” ere ETAK borroka armatuarekin jarraitu izanak argitu zuen bere borrokaren zinezko esanahia. Hastapen beretik eta gaur ere Euskal Herri independente baten aldekoa izan da beti bere ekimena.

70eko hamarkadaren amaieran, frankistak Espainiako Estatuaren erreforma aurrera eramaten ari zirelarik, euskal indar politikoak Xibertan elkartu ziren eskabide eta estrategia bateratua adostu asmoz. Saioak huts egin zuten eta desadostasunak ekarritako porrotak gaur arterainoko enfrentamendua luzatzeko bide eman zuten.

Euskal lurraldeetan Espainiako Konstituzioak gehiengoaren oniritzia jaso ez zuen arren, erreforma frankista onartu zutenek indarrez inposatu zuten “trantsizio demokratikoa”.

ETAK, ordea, ENAMeko partaide gisa, gatazka armatua gainditzeko KAS Alternatiba bere egin zuen. Espainiako

Estatuaren menpeko lau lurraldeen batasuna eta autodeterminazio eskubidea oinarri zuen programa politiko horrek gutxieneko demokratiko batzuk defenditzen zituen.

87-89 urteetan, ETA eta Espainiako Gobernuaren ordezkariak negoziazio politikorako mahai baten inguruan eseri ziren Aljerian. Prozesuak huts egin zuen.

90eko hamarraldi erdialdean Alternatiba Demokratikoa sortu zen, herriari hitza eman leloa oinarri zuena. Proposamenaren funtsa zen euskal herritarrek kanpoko inolako esku-hartzerik gabe erabaki ahal izatea beraiei zegozkien gaien inguruan.

Urte gutxiren buruan iritsi zen Lizarragarazi izenez ezagutzen den prozesu politikoa, hurrengo aroaren mugarrira jarri zuena, non euskal alderdi eta eragileen arteko adostasun eta elkarkidetzak gatazkaren irtenbide gisa ez ezik Euskal Herria askatzeko gako eta oinarri gisa ere agertzen diren.

2004an Ezker Abertzaleak Anoetako Proposamena plazaratu zuen: gizarteko ordezkari eta eragile politikoei gatazka politikoaren erroak gainditzeko adostasuna bilatzea legokie, eta ETARI eta Frantziako eta Espainiako gobernuei gatazka armatuaren ondorioak gainditzeari zegozkionak. Bi mahaien konponketa eskema eredu hartuta egituratu zen 2005-2007 aldiko negoziazio prozesua. Elkarriketa haietan inoiz baino urrunago iritsi zen gatazkaren irtenbiderako mamia mahairatzeari dagokionez, baita gerora osagai garrantzitsua bilakatu zen nazioarteko komunitatearen inplikazioari dagokionez ere.

Azken prozesu horren hausturak urtetan mantendutako konponbide ikuskera oso baten amaiera adierazi zuen. Ordura arteko ibilmoldearen agortze zantzuak geroz eta sakonagoak izanik, askapen prozesuaren egoerari buruzko irakurketa estrategikoa egiteko tenorea iritsi zitzaion Ezker Abertzaleari, eredu osoa berrikusi eta eraberritzeko. Ildo politiko-armatuaren aroa gainditutzat emanez herriaren

aktibazioa eta aitzindaritzaren berme bakarizatzen izango lituzkeen ekinbide independentista baten aldeko hautua egin zen orduan.

1.2.- ETaren ekarpena

Euskadi Ta Askatasunaren historia gora-beheratsua izan da. Zatiketak, krisiak eta eraldaketak ez dira falta izan. Borroka esperientzien eta agertoki politikoaren arabera garatu eta berregituratu behar izan du. Nolanahi ere, 1950eko hamarraldi amaieran sortu zen Erakundea ez da, noski, gaur egungo bera. Urte guztietan, ETA Euskal Herriaren askatasunaren alde erabat engeiatzeko aukera izan da eta ETaren bidez milaka kidek eman dute mota guztietako ekarpena (batzuek bizia eta askok bizitza).

Abagune aldaketan eta eztabaida ideologikoen gainetik, hastapeneko erakunde haren DNAk gaurdaino biziraun du, bere antolaketa eta ekite-tresnak garatzen eta aldatzen jakin duelako. Eta bere zikloaren amaierara iritsia den ETA erakundea, sortu zenetik hirurogei urtetu igaro direnean, orduko haren izpiritua eta konpromisoa mantentzen ditu, orduan bezala gaur ere Euskal Herria ez delako aske, orduko hiltzori hurrenetik atera den arren.

Herri gisa eta herritar gisa askatzeko borroka izan da ETarena. Euskal Herri independente batean jendarte sozialista baten aldeko hautua egin du ETak bere sorreratik, borroka nazionala eta soziala txertatzea izanik ETaren ekarpen garrantzitsuenetakoa.

Borroka armatua izan da ETak erabili duen borroka-tresna nagusia. 36-37ko gerraz geroztik, Euskal Herriko gatazka politikoa zampaketa armatu bilakatua zen ETA sortu zenerako. Horrela, ETak borroka armatuaren hautua egin zuenean, gatazka bi aldean arteko enfrentamendu armatu bilakatu zen berriro. ETak indar atzeritarren biolentziari euskal biolentzia legitimoarekin erantzun dio.

ETak borroka armatua "azken baliabide" izatearen izpirituarekin egin izan du, Euskal Herria askatzeko bestelako bideak itsutuak zeudela aztertu eta gero. Baina borroka armatuak askapen prozesuari zampaketa egoera gainditzeko beharrezkoa zen bulkada emango zion ziurtasunez ere egin du. Alegia, borroka armatuaren indarrari esker herritarrek beren eskubideak berreskuratzeko egoera politikoak sortzeko asmoz.

Erakundea borroka armatua alde batera uzteko egoeren bila aritu da beti. Elkarriketa eta negoziazio prozesu ugariak hala nola ETaren bestelako ekimenek erakusten dute Erakundeak betiere gataz-

karen alde armatua gainditzeko konponbidearen aldeko hautua egin izan duela. Konponbide prozesuen hutsegiteak porrot handiak izan dira guretzat. Gatazkaren gainditzeara atzeratzea ez ezik, ETak nahi ez zuen sufrimendu eta min egoera luzatzea ekarri izan duten neurrian.

Euskal Herriaren kokapen geografikoa (munduko bi estatu boteretsuenen menpe) eta egoera sozio-politikoa (Europa kapitalistaren bihotzean) kontuan hartuta, arma bidezko garaipena ez da izan ETaren helburu. ETak bere ideologia ezkertiarra ezkutatu gabe, Euskal Herriko joera politiko guztiek berdintasunean lehiatuko duten egoera juridiko-politiko adostua lortzea izan du helburu.

Borroka armatua aho-biko ezpata ere izan da hainbatetan. Batzuetan, hautatu helburuak herritarren onespena edo ulermena ez dutelako jaso izan. Bestetan, ekintzek nahigabeko ondorioak izan dituztelako. Zentzu horretan, egindako akatsak onartu eta samina ere eragin duela ulertzen du ETak.

Espainiako Estatuarekiko hiru negoziazio prozesuren ostean (Aljer, Zurich eta Suitza-Norvegia), gehi euskal alderdi eta gizarte eragileekiko beste bi prozesuren ostean (Lizarrar-Garazi eta Loiola), euskal jendarte aktibatze eta egoera politiko berriak zabaltzen laguntzeko borroka armatuak joka zezakeen funtzioa kolokan geratu zen.

Baina oroz gain, argi dago, urteotan, gatazka armatuak aurrera egin ahala borroka armatuaren eraginkortasuna aldatu eta higatu egin zela.

Esan daiteke ETaren borroka armatuak bete zuela jadanik bere zeregina, alegia, Euskal Herriaren zampaketa aurre egitea eta Euskal Herriak bere erabakitze ahalmena eskuratzeko prozesuak bultzatzeko tresna nagusi izatearena.

2.- ETaren ibilbidea zikloaren eta estrategiaren aldaketan barrena (2009-2017)

Borroka armatuaren bukaera zer testuinguruan eman den eta nola gauzatu den aztertzea da atal honen xedea.

Borroka armatua uzteko erabakiaren izaera estrategikoa nabarmendu behar da ezer baino lehen. Askapen prozesuaren egoera eta beharrak hausnartu eta gero ekin baikenion estrategia aldatzeari. Guk hartu genuen erabakia aldagai anitz aztertuta, eta tartean urtetako borrokan eskuratu diren lorpenak eta agertu diren

agortze zantzuak daude, ireki diren aukeak eta azaldu diren mugak. Batez ere, erabakia helburu argi batekin hartu genuen: independentzia eta sozialismoaren aldeko borroka indarberritzeko baldintza egokiak sortzeko eta tresna eraginkorrez hornitzeko.

Ziklo historiko bat itxi genuen ziklo politiko berri bat abiarazteko. 2009-2017ko epealdia trantsizio moduko bat izan da Erakundearen ekinbidean. Batetik, estrategia politiko-militarra gainditu ostean konfrontazio armatuaren zikloa ixten aritu gara eta, bestetik, ziklo politiko berriaren oinarriak eraikitzen.

Prozesua modu konplexuan garatu da urteotan. Egia esan, iruditegi kolektiboan eraikitzen direnak baino prozesu konplexuagoak ekarri ohi ditu errealitateak. Euskal Herrikan kanpo azken urteotan izandako esperientziak ikusi besterik ez dago. Guztiarekin ere, ETak bere bide propioa egitea lortu du.

2.1.- Ziklo politikoaren itxiera eta konponbide prozesua

Ziklo politiko berria hasteko beharrezkoa zen zaharra ixtea. Behin estrategia aldatuta eta borroka armatuaren bukaera erabakita, Erakundea egoera berrira egokitu behar zen osoki, historikoki bete dituen funtzioetatik hasita, egituraren egokitzapenetik igaro eta armagabetzeraino.

Izaera estrategikoa zuen erabakia gatazkaren ondorioak gaindituko zituen konponbide prozesu oso bat egituratzeko baliatu nahi izan genuen. Arrazoi politiko eta humanoak agerikoak izateaz gain, euskal jendartearen konponbide gogoarekin eta nazioarteko eragileen ikuspegiarekin bat egiten zuen.

Baina estatuek ez zuten prozesuaren beharrik. Hein batean neurria hartua zioten estatuek Ezker Abertzalearen estrategiari. Eta sinistuta zeuden, gainera, Erakundea garaitzeko bidean zeudela eta horrekin batera ezkerreko mugimendu independentista osoa erabat ahuldua utziko zutela.

Horrek ezinezkoa egiten zuen konponbide prozesua aldeko akordio batetik abiatzea. Erakundeak aldebakarreko ekimenek abiarazi behar zuen, estatuen posizioa zailtzeko. Bestela, aldeko akordioaren zain, estrategia aldaketa gauzatu ezinean gelditzeko arrisku bizia zegoen. Estatuen posizioen gaitibu gelditzeko, hain zuzen.

Estatuen posizioen erakusgarri, ETak aldebakarreko urratsa eginda ere, estatuek ez dute erantzun positiborik eman. Horregatik, konponbide prozesua baino gehiago, prozesu hori abiatzeko edo

indargabetzeko bataila handi bat egon da, estatuek muin-muineko eztabaida politiko-ari izkin egiteko tratatzen baitute konponbidea.

Duela zazpi urte pentsa zitekeen konfrontazio armatuaren zikloaren bukaera eragile guztien intereseko izango zela, baina ez da horrela gertatu. Guk ziklo aldaketa askapen prozesuan aurrera egiteko beharrezkoa zela ondorioztatu baldin bagenuen, horixe bera egin zuten etsai eta arerio politikoek ere. Horregatik, konfrontazio armatua modu egokian ixtea eragozteko ahalegin guztiak eta bi egin dituzte eta egiten ari dira oraindik.

Baina harago, estatuen jokabide hori azaltzeko, Espainiaren izaera ez demokratikoa nabarmendu behar da. Egitate politiko gisa zapalkuntza, biolentzia eta mendekua bere nortasunean ezarrita daude, mendeetan zehar sakonki errotuta. Hortaz, ez daude prest Espainiaren nagusitasuna auzitan jarriko lukeen balizko prozesurik onartzeko.

Horregatik, etsaiak ez zuen soilik borroka armatuaren bukaera edo ETaren desagertzea bilatzen. ETaren derrotaren irudikapena behar zuten. ETaren zikloa modu adostuan edo Erakundearen erabakiz bukatzea, urtetan eraiki duten kontakizunarekin koherentea ez izateaz gain, hamarkadetako borrokan metatutako kapitala erronka berrien mesedetan jartzea ahalbidetu zezakeelako. Zio horrekin, konponbide adostuaren aukera baztertzeaz gain, aldebakarreko urratsen aukera ere ezinezko bilakatu nahi izan dute.

2.2.- ETaren ekimenaren bilakaeraren irakurketa

Zazpi urteren buruan erabateko aldaketa gauzatu du ETak, modu mailakatuan, estrategia politiko-militarra indarrean izatek bere ziklo historikoa amaitzeko erabakia hartzeraino.

Garai hau konplikatu samarra izan da ETarentzat. Logikoa izan daiteke eraldaketaren tamaina eta zer nolako baldintzetan eman den ikusita. Barne zailtasunak ere ez dira falta izan. Izan ere, 2009ko udazkena ordua aldatu gabe heldu zitzaion Erakundeari. Ez zegoen prestatuta egoera eta erabaki berriak behar zen bezala kudeatzeko, ez hausnarketa mailan ez baliabideetan. Horrela, urteotako ibilbidean hanka bat agertoki berrirantz luzatu eta bestea iraganeko eskemetan sartua izan dugu sarri, ETak egoerari aurrea hartu eta bide berria eraikitzeke gaitasuna izan duen arte.

2.2.1.- Zutik Euskal Herriatik Aieteko Konferentziara (2010-2011). Ezker

Abertzaleak 2009ko udazkenean abiarazi eta Zutik EH ebazpenarekin bukatu zuen hausnarketak estrategia aldaketa erabaki eta ziklo politiko berrirako abiapuntua jarri zuen. Ebazpen hark indar handiko aukerak zabaltzen zituen arren, giro nahasi baten erdian egin behar izan genituen lehen urratsak.

Erakundearentzat une kritikoa izan zen, ez baitzuen gaitasunik izan aldaketa berehala eta behar zen sakontasunean gauzatzeko. Aitortu behar dugu garaiko hutsegite eta nahasmenduek itzal luzea izan dutela ostera ere, ildoaren garapena zentzu ezko-reen baldintzatuz.

Orduan, hasierako epealdi kontraesankorra gaindituta, egoera zatiketarik gabe bideratzeko ahalegin bete izan zen ETarena, estrategia aldaketaren kontra antolatutako dinamika zatikatzailak geldiaraziz eta mugimenduaren kohesioa bermatzeko bitartekoak jarritz. Gerora, urteak pasa ahala, zatiketa saioa berpiztu egin da hainbat arrazoi tarteko, egia bada ere Ezker Abertzalearen nortasunaren eta historiaren ikuspuntutik gero eta arrotzagoak direla sektore horien mezua eta jokabidea.

Gauzak horrela, egoera berrira modu dinamikoan egindako egokitzapenaren lehen pausu gisa, 2010eko otsailean eraso ekintza armaturik ez egitea erabaki zuen ETak. Isilpeko eta behin behineko erabakia izan zen, 2010eko irailean publiko egin zena. Epealdi hori ETaren hausnarketa gaurkotu, fase aldaketara egokitu eta Ezker Abertzalearen erabakiekin bat egiteko erabili genuen. Aldebiko su-eten batera iristeko eta behin betiko izaera izango zuen konponbide prozesu bat martxan jartzeko urratsa ere izan zen.

Ondoren, egoera berriari egonkortasuna emateko eta Bruselako Adierazpenak finkatu zituen irizpideei jarraituz, ETak su-eten iraunkorra, orokorra eta egiaztagarria indarrean jarri zuen 2011ko urtarrilean. Aldi berean, nazioarteko bitartekarietara harremana estutu zen, Espainiako Gobernua-rekin bide bat irekiz bitartekarien bidez.

Ordura arte Erakundea modu behartuan ari zela uste bazuten herritar eta eragile askok, bakerako eta konponbiderako borondate irmoa zuela erakusteko ekimenak burutzea erabaki zuen ETak, egiazko oztopoa ez-nahikotasunaren diskurtsoan gotorturik jarraitzen zuten estatuak zirela agerian uztearren. Horrela, 2011ko martxoan Erakundeak iraultza zerga bertan behe- ra gelditzen zela jakinarazi zien ugazaben elkarteei. Gainera, ETak su-etenaren egiaztatze mekanismo informal bat ontzat emango lukeela jakinarazi zuen, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen sorrera ahalbidetuz.



2.2.2.- Aieteko konferentzia eta Erakundearen erabakia. Urte hartako urrian, 2011n, borroka armatua amaitutzat emateko ETAre erabakia kokatze aldera hiru aldagai hartu behar dira kontuan:

- Erakundeak fase berri batera gindoaze-la eta borroka armatuaren bukaera beharrezkoa zela barneratua zuen ordurako. Borroka armatuaren bukaera errealtate bat zen. Baldintza egokienetan gauzatzea zen gakoa.

- Nazioarteko bitartekariekin egindako harremanetan agerian gelditu zen ez zegoela baldintzarik negoziazio prozesua alde-biko akordio batetik abiarazteko. Gainera, Estatuak bazekien egindako urratsetan Erakundeak ez zuela atzera egingo eta urrats gehiago ez ematea ere bere kontra bilaka zitekeela, Erakundeak ez baitzuen hausturaren aukera kontenplatzen. Hortaz, negoziazio prozesu bat hasteko baldintzak ez ziren onenak, baina ez ziren hobeak helduko. Estatuaren jokabidea baldintzatzea zen beraz gakoa.

- Euskal Herrian indar harreman berriak sortzen eta agertoki emankorra eraikitzen ari zen, elikatu beharra zegoena. Aldiz, Espainian gero eta asaldatuago zeuden eskuin muturreko sektoreak, eta inboluzio arriskua agerikoa zen. Egoera horiei aurrea hartu eta gure prozesuan ahalik eta gehien aurreratzea zen gakoa.

Aldebiko akordio batera iristeko zailtasunak zirela-eta, alde bakoitzak nazioarteko bitartekarien aurrean hartu zituen bere konpromisoak. Aieteko Adierazpenak eta bide-orriak alde ezberdinen proposamenen sintesia egiten zutela esan daiteke, aurrera egiteko bidea eskaintzen zuena.

Bide-orriaren edukiari dagokionez, eske-ma indartsua zen:

- Aieteko Konferentzia finkatu zen prozesuaren abiapuntu gisa.

- Premiazko neurriak biltzen zituen, hala nola, euskal preso politikoen Euskal Herriratzea, gaixorik zeuden presoek etxeratzea, Ezker Abertzalearen ilegalizazio aroaren bukaera...

- Negoziazio prozesu bat abiarazteko egitura eskaintzen zuen: Erakundearen ordezkarietako bermeak, negoziazio gunea eta negoziazio gaien agenda.

Aieteko Adierazpenaren edukiaren balioari dagokionez:

- Bide-orria gatazkaren ondorioei zuzendua bazegoen ere, Aieteko Adierazpenak konponbidearen osotasuna nabarmendu zuen.

- Euskal Herria bere osotasunean hartu zuen eta Frantziako Estatuari aipamen zehatza egin zion.

- Nazioarteko Jarraipen Batzorde bat osatzeko eskaintza egin zuen.

Elementu horiek guztiak oinarri hartuta, Aieteko Konferentziatik hiru egun beranduago ETAk borroka armatuaren bukaera iragartzen zuen adierazpena egin zuen.

2.2.3.- Negoziazio gunearen sorrera eta prozesua egituratzeko saiakera (2011-2013). Aieteko bide-orriari jarraituz, ETAre ordezkarietza negoziazio gunea izan behar zen herrialdean kokatu zen, segurtasuneko berme guztiekin. Horrela, ETAk eta nazioarteko eragileek bere konpromisoak bete zituzten. Ez zen berdina gertatu Espainiako Gobernuarekin, eta elkarrikketa prozesuari ekiteko baliabideak egon arren, prozesua blokeatuta gelditu zen hasiera-hasieratik. Esan daiteke blokeo horretan harrapatuta gelditu zela Erakundea bera ere, eta egoera horretan eragiteko aukera handirik gabe.

Estatuek jarritako zepo hori gaindituz prozesua Euskal Herrian berpizteko saiakera egin zen. Aieteko sustatzaileak behin eta berriro ahalegindu ziren Euskal Herriko indar politikoak biltzen, elkarrikketa zabaltu eta akordioetara iristeko, Espainiako Gobernuaren jarrera aldarazteko helburuarekin. Baina ez PNVk ez PSOEek ez zuten Aieten finkaturiko eredia bultzatu nahi. Blokeoa ontzat ematen zuten, Ezker Abertzalea higitzeko; indar horiek Aietetik urruntzen hasi ziren ETAk borroka armatuaren bukaera iragarri zuen une beretik.

Gauzak horrela, frantziar Gobernuarekin azken saio serio bat egin eta gero, konponbide eredu hori apurtua zegoela ondorioztatu eta negoziazio gunea desegin zen, fase baten bukaera iragarri.

Edonola ere, ez genuen asmatu Aietek irekitako bide indartsuari jarraipena ematerako orduan eta aukera handi bat galtzen utzi izanaren sentsazioa gelditu zen.

2.2.4.- Foro sozialak eta aldebakarreko ekimenak (2013-2016). Jadanik agerikoa zen konponbiderik egongo bazen ez zela Erakundea eta estatuaren akordio baten eskutik izango. Eta ondorioen konponbidearen agenda Euskal Herrian adostu eta estrategia partekatu baten bitartez gauzatu behar zela.

Negoziazio eskema zaharrarekin haustea on egin zuen, jadanik erabat agortua zegoen eredia garatzeko ahalegin antzuan murgilduta baitzegoen Erakundea. Horrek blokeoa errotzen zuen eta borroka armatua bukatzeko erabakiaren dimentsio estrategikoa estalita uzten zuen, estrategia aldaketak askapen prozesuaren garapenerako zabaltu zituen aukerak kontuan hartu gabe. Maila batean, gure iruditegi kolektiboaren gatibu izan ginen eta aldebiko eskema klasikoa lehenetsi genuen.

Gainera, Estatuak, konponbidea blokeatuta eta bide-orria indargabetuta uztearekin batera, lehengo enfrentamendu egoeran ginelako proiektatzeko irtenbide polizialaren ameskeria berpiztu nahi zuen.

Kezka ez zen soilik ETA eta Ezker Abertzalearena. Blokeo egoeraren aurrean, jendarte zibilak hartu zuen iniziatiba Bake Bidea eta Foro Sozialen eskutik, konponbidean aurrera egiteko hamabi gomendio aurkeztuz. Eredu indartsua zen Foro Sozialarena, konponbidea herri gisa garatu eta, estatuen parte-hartzea beharrezkoa den eremuetan, herri interlokuzioa osatzeko aukera ematen baitzuen.

Erakundeak bere aldetik ontzat eman zuen eskema berri hura, Euskal Herriak konponbide eredu berri bat eraikitze gogoz. Eredu hori seguru aski koherentea goa zen prozesuaren berezko ezaugarriekin, ETAK borroka armatua uzteko hartutako erabakia behin betikoa izanik, logikoa goa baitirudi ondorioen konponbidearen gestioa herriaren esku gelditzea.

Hortik aurrera, bide hori elikatze aldebakarreko ekimenez jardutea eta, nagusiki, armen eremua mugitzea erabakiko du ETAK. Erakundearen asmoa armategien zigitatzearekin iniziatiba hartzea zen, armen auzia gure posizioa higatzen zuen elementua izatetik gure estrategia elikatzen zuen aktiboa izatera igarotzeko. Gainera, esanahi sakona zuen, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin aurrera egingez estatuen autoritatea eta zilegitasuna auzitan jartzen zirelako. Lehen irudi sinboliko txiki hura, gerora, bakearen artisauek egin zuten urratsaren aurrekaria izan zen.

2.2.5.- ETAREN ARMAGABETZEA. LUHUSO ETA BAIONA (2016-2017). Armen inbentariatze eta zigitatze prozesuari jarritako oztopoekin agerian geratu zen estatuak armen afera zama bilakatu nahi zutela ETarentzat, aurreko zikloaren logika birsortzeko etenik gabe. Baina, Luhuson abiarazitako bideak hankaz gora jarri zuen Madriletik diseinutako estrategia hura.

Armagabetze prozesua herri ekimena oinarri duen bidea iruditatzeko ariketa izan zen, are gehiago gobernuarekin negoziatio eremutik abiarazi zen neurrian. Gizarte zibilaren aktibazioaren eskutik, eragile politiko, sozial eta sindikalek eta Euskal Herrian indarrean diren erakundeak, elkarrekin arituz, herri ekimen hura burura eramatea lortu zuten. Azkenik, estatuak mugiaraztea ere lortu zen. Paradoxikoki, aldebakartasuna muturrera eraman zenean, maila bateko aldebetasuna lortu zen.

ETAREN ziklo historikoaren amaieraren logikaren baitan ere ulertu behar da arma-

gabetze ekimena, orain Erakundearen amaierari buruzko erabakia hartzeko baldintza egokiagoak sortu dituelako. Azken batean, bat eta bakarra baitzen guk argitu beharreko galdegaia: zer egin behar zuen ETAK aipatu herri prozesua baldintzarik egokienetan garatzeko.

Horregatik ere, armagabetzearen hartzaila gure herria izan zen. Hortik sortu zen borroka armatuari ekiteko indarra eta hor eman genion amaiera. ETAK armagabetzea gizarte zibilarekin adostu zuen, haren esku utziz ardura politikoa eta teknikoa. ETAK gizarte zibilaren ordezkariari eman zizkien bere armak, nolabait, zirkulua itxiz: Euskal Herriaren alde egiteko hartu zituen armak eta Euskal Herriaren esku utzi ditu, fase berri batean aurrera egiteko. Armagabetzeak hori baitzekarren: gure xede politikoak herriarekin batera soilik bide politikotatik bideratzea.

Armagabetze prozesuaren amaierak ukazina izan behar zuen, zalantzarako tarterik utzi gabe. Hala izan zen. Nazioarteko inplikazioa eta Frantziako Gobernua mugitu izana funtsezko elementuak izan ziren hori lortzeko, Espainiako Gobernutik bideraturiko intoxikazio saioak indargabetzeko. Aldi berean, armagabetzea gatazkaren beste ondorioak agerraztea ahalbidetzen ari da. Horrek ez du esan nahi horien konponbidea erraza izango denik, baina borroka horiek egiteko egoera hobean gaude herri gisa.

3.- Euskadi Ta Askatasunaren ziklo amaierari buruzko erabakia

3.1.- ETA desegiteko erabakia hartzea eragin duten faktoreak (zergatik orain)

3.1.1.- Sortutako eta lortutako baldintzak. Gabeziak gabezi, borroka hamarkada hauen ondorioz funtsezko lorpen batzuk eskuratu ditu askapen mugimenduak, prozesuan aurrera egiteko eta Erakundearen erabakiak hartzeko oinarri ditugunak. Laburbilduz:

- Frankismoaren erreformatik eratorritako marko juridiko-politikoaren agortzea eta zilegitasun eza Euskal Herrian aspalditik egiaztatzen ari den errealtatea da, Nafarroan buruturiko jauzian nabarmen irudikatu denez.

- Estatuen krisia eremu ezberdinetan, nabarmenago eta bereziki Espainiako Estaturako, krisi ekonomikoari krisi politikoa, instituzionala, soziala eta lurraldeena gehitu baitzaizkio.

- Erabakitze eskubidearen nagusitasu-

na herritarren artean eta herri mugimendu zabal baten egituratzea.

- Burujabetzaren aldeko indar anitzen artean akordioak egiteko baldintzak.

- Independentzia egitasmoa egingarria da, eta ez soilik urrutiko kolonietan, Katalunia eta Eskoziako gertuko ereduak erakusten duten bezala.

- Aldaketa sozio-politikoaren aldarrikapen errotua, Euskal Herrian piztutako mugimendu ugartan ikus daitekeenez.

- Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan sortutako indar harreman berria, aldaketa esanguratsuak ekarri dituen gatazkaren muin politikoari (ezagutza instituzionalerako urratsak) zein ondorioei (Baionako Adierazpena eta Bakearen artisauek) ekiteko.

- Euskal Herriaren lurraldetasuna ehuntzeko (maila sozial, politiko eta instituzionalen) sortutako dinamika eta aukera berriak.

- Elkarriketaren eta negoziatioaren aldeko iritzia nagusi da Euskal Herrian, gaur gaurkoz ekimen sakonak lozorroan dauden arren.

- Gatazkaren ondorioei aterabidea ematearen aldeko jarrera. Estatuaren blokeoaren gainetik, konponbidearen agendako gaiek eta haiei soluzioa emateko premiak babes zabala dute.

- Mobilizazio eta aktibaziorako gaitasun handia erakutsi du gure herriak, hortaz, borrokari eraginkortasuna emateko herri muskulua egon badago.

- Erakundeetan eragiteko gaitasuna biderkatu egin du ezkerreko independentismoak. Prozesu eratzaile eta konstituziogile batek beharko duen osagai instituzionala lortzeko aukera izan badela ondorioztu dezakegu.

3.1.2.- Fase politikoaren ezaugarritzea. Euskal Herria faseen arteko igarobidean dago, igarobide aldapatsuan. Aurreko fasea atzean uztea eta berrian barrena osoki egitea da aurrera egiteko hauturik eraginkorrena, Espainiako Estaturako krisi ekonomiko-soziala, politikoa, morala eta lurralde ereduari dagokionak sortzen duen ezegonkortasunak euskal proiektu askatzailearen alde argudioak besterik eskaintzen ez dituelako.

Hain zuzen, gatazkaren muin politikoari (burujabetza eza) helduko dion herri prozesua azkartzea dugu erronka eta zeregin. Horrek emango dio zentzua guztiari, eta hori gabe askapen prozesua geldialdian sar daiteke. Horregatik, ETAREN iritziak, herri prozesu nazional hori egituratzea da fase honetan independentziaren aldeko indarren eginbeharrak garrantzitsuena.

Horrenbestez, Ezker Abertzaleak egin

Horregatik ere,
armagabetzearen
hartzailea gure
herria izan zen.
Hortik sortu zen
borroka armatuari
ekiteko indarra
eta hor eman
genion amaiera

dituen eta egingo dituen urratsak, garatu behar duen ildoak ez dira aseezina den inor asetzeko, fase aldaketa horretan barrena egiteko baizik. Horixe da hainbeste buru-hauste teoriko eta praktikoa ekarri digun aldebakartasuna eta aldebigotasunaren arteko bereizketa. Estatuarekin aurkitu ahalko litzatekeen tarteko puntu baten bila lehentasuna jartzea da aldebigotasuna. Aldebakartasuna, aldiz, ahalik eta urrunen iristen saiatzea, herri babesa oinarri. Bi jokabide horietatik batek nagusitasun orokorra hartzeak ez du horregatik esan nahi une jakinetan beste lerroaren osagaiak gehitu ezin daitezkeenik.

Aurreko fasea behin betiko atzean uztea eta berria erabat zabaltzea ez da batere erraza izango. Arrazoi asko daude horretarako, baita, horien artean, ezkerreko independentisten gabeziak eta akatsak ere. Halere, urteotan erabakigarriak izan diren bi oztopo azpimarratu behar ditugu:

- Estatuak haien nagusitasuna galtzearen beldur direlako blokeatzan dute gatazkaren konponbidea, proiektu politiko desberdinen arteko konfrontazio demokratikoari ezin baitiote eutsi. Haien proiektuak menpekotasuna eta zapalkuntza ditu oinarri, eta horri eusteko mekanismo errepresiboa jartzen dute martxan. Estatuak ditugu oztopo, eta aurrez aurre ditugu beren indar koertzitibo osoarekin.

- EAJ-PNVren jokabidea, salbuespenak salbuespen, eskasa izan da gatazkaren ondorioak konpontzeko ahaleginean zein arazo politikoari ekiterakoan. Ezker Abertzalearentzat porrot politiko eta ideologiko baten bila dabil, frankismoaren erreformaren prozesuari buruzko irakurketan eta garaian indar bakoitzak egindako hautuaren auzian. Azken 40 urtetako PNVren ildoaren segida baino ez da hau. Ez da ordea posizio mugiezina.

Trantsizio garai honetan, onartu behar dugu igarobidean barrena egin beharrean kolapso egoeran egon garela zenbait unetan. Halere, aurrera egiteko baldintzak hortxe segitzen dutela esan dezakegu, trantsizio horretatik onik irteteko moduan. Gakoa prozesu independentista eraikitzea da, herri prozesu demokratikoaren izaera izan beharko duena. Horixe da ETaren erabakien iparrorratza.

3.1.3.- Borroka armatua uzteko erabakiaren izaera estrategikoa. Nazioarteko eragileen bitartez ETak eta Espainiako Gobernuak finkatutako bide-orri bati lotuta hartu izan arren, borroka armatua uzteko erabakiak beste izaera bat zuen Erakundearentzat: estrategia politiko-militarretik estrategia politikora igarotzea, edo zein bide-orraren gorabeheren gaineratik ere.

Erabaki horren arrazoiak aztertzerako orduan, bi motatakoak nahasten direla esan beharra dago. Batzuk prozesuan izandako aurrerabideei lotuta eta beste batzuk, berriz, estrategia politiko-militarren (historikoki ETak ulertu duen moduan) agortze zantzuei lotuta. Arrazoi politikoak, sozialak, teknikoak eta beste nahasten dira, beraz. Guztiak hartu behar dira kontuan azterketa egokia egiteko. Dena den, sortutako baldintza sozio-politikoei erantzutea da ETaren erabakiaren muina ulertzeko faktore nagusia.

Egia ukaezina da Ezker Abertzalearen estrategia aldaketaren beharra jada oso modu nabarmenean mahairatu zen garaian borroka armatua egiteko arrazoiak bere horretan segitzen zutela. Euskal Herriaren ukapenak bere horretan segitzen zuen, eta zapalkuntza estruktural hori behin eta berriz birstortzeko egiturek eta ekinbide errepresiboei ere betiko lepotik zuten burua. Orduan ETan izandako hausnarketan borroka armatuaren zilegitasuna ez zen ezbaian jarri, ez zen gogoetaren abiapuntua izan, ikuspuntu etikoa beti kontuan hartu beharreko faktorea izan arren, borroka armatuak izan ditzakeen desbideratze arriskuak ekiditeko.

Sortutako baldintzei modu egokienean eta eraginkorrean erantzutea zen hausnarketaren funtsa, eta horretarako trabatzen gintuzten eskema batzuk gainditu behar genituen: negoziazio prozesuak ulertzeko modua eta borroka armatuari une jakin bat arte (gutxieneko egoera demokratikoa) eutsi behar zitzaiola ustea, besteak beste. Borroka armatua eta estrategia independentista garatzeko ezinbestekoa zen indar metaketak gero eta bateraezina izango zirela oso agerikoa zen jadanik. Ondorioa ere garbia: borroka molde guztien osagarritasunaren printzipioa ezin zen mantendu eta aldaketak erabatekoa beharko zuen izan.

Hortaz, askapen prozesuak ereindakoa- ren uzta jasotzeko estrategia aldatu beharra zegoen, eta borroka armatua ezingo zen indar metaketarekin, aktibazio sozialarekin edo burujabetza prozesuarekin batera garatu ahal. Izan ere:

- Borroka armatuak, tentsio sortzaile izaten jarraitzen zuen neurrian, konpondu beharreko gatazkaren existentzia azaltzen zuen arren, Espainiako Estatuari errazago bihurtu zitzaion Euskal Herriarekin duen gatazka politikoa gatazka armatuaren terminoetan kudeatzea proposamen demokratiko eta politikoen bidez kudeatzea baino. Ordea, argudioen zein gehiengoen zilegitasun demokratikoa gaitasun handiko arma bilaka daiteke demokrazia onartzeko prest ez dagoen Estatuaren kontra.

- Osagarritasunik ezean, jardun armatua behin-betiko etetea inizatiba bilakatzeko aukera sortu zen; hain zuzen ere, eztabaida politikoa pizteko, herri protagonismoa indartzeko eta aliantza politikoak errazteko.

Balorazio honek beste eztabaida bat eragin dezake. Ea ez ote genuen estrategia aldaketa lehenago egin behar, eta parametro berriak ez ote behar genituen aurreko prozesuetan txertatu, 2005-2007 negoziazio prozesuan edo Lizarra-Garazikoan, esaterako. Garaian garaiko aldagai asko hartu beharko lirateke kontuan atzera begirako ariketa hori egiteko, baina edozein kasu, ez litzateke gure aldetik zintzoa izango gure bidea bere osotasunean beti zuzena izan dela esatea eta ez zegoela hartu ziren erabakiak hartzea baino beste aukerarik. Zentzu horretan egiten dugu autokritika: halako prozesuetan ez ginela behar beste prestatuak sartu, zenbait eztabaida behar bezala egin gabe utzi baikekituen, eta horrek aukerak mugatu zizkigula, zenbait eskema errepikatzeak ondorioak ere errepikatzea zekarrela ohartu gabe.

Baziren borroka armatua agortzen ari zela erakusten zuten beste aldagai batzuk, guztiak ere aintzat hartu beharrekoak, horien azterketak ere eraman gintuelako estrategia aldaketa azkartu eta borroka armatua uztera.

- Faktore soziala. Urteek aurrera egin ahala borroka armatuaren aldeko babesa gutxituz joan da. Ez gara ari jendarteaz soilik. Ezker Abertzalean ere fenomeno hori areagotu da. 70eko eta 80ko hamarkadetan estrategia politiko-militarra bere osotasunean onartzen zuten Ezker Abertzalearen oinarri sozialaren gehiengo ia erabatekoak. Proiektu estrategikoa, alternatiba taktikoa eta borroka ezberdinen arteko osagarritasuna onartuz bloke oso eta trinko bat osatzen zuten Ezker Abertzaleak, politikoki hesitua egon bazen ere, beste indarrek eginituen eta isolamendu politikaren erruz. Alegia, Ezker Abertzaleak sendotasun handia zuen, baita borroka armatua defendatzeko orduan ere, baina, Ezker Abertzaletik kanpo, erreforma frankistatik etorritako amaraunari zeuden estuki lotuta gainerako indarrak. Egoera hori aldatzen joan zen, eta pitzatzea ere lortu genuen, gero eta sektore gehiagok jarri baitzuten zalantzan trantsizioaren iruzurra eta bide autonomikoa. Aldi berean, ordea, borroka armatuari buruzko sendotasuna ere pitzatzen hasi zen Ezker Abertzalearen oinarrian, eta eboluzio horrek, gorabeherekin, ez du etenik izan orduz geroztik.

- Nazioarteko egoera. Testuinguru jakin batean jaio zen ETA, munduan zehar borroka armatu iraultzailea erabiltzen zuten askapen prozesuak ugaritzen ari zirelarik.

Prozesu iraultzaile horien garapenak ia leku denetan mota horretako borroka armatua desagertzera eraman du, batzuetan arma bidezko borrokan irabazi zutelako eta beste batzuetan estrategiaz aldatu dutelako. Kasurik hurbilena IRArena dugu. ETAk erabakia hartu zuenean FARCEko erreferentziak oraindik ere eusten zion, baina ikusi dugu horretan ere estrategia aldaketa denbora gutxiren kontua izan dela.

Bestalde, nazioartean eragin handia izan duen beste fenomeno bat jihadismoarena izan da. Haren ekintzek maila guztietan zaildu dute egoera, ETArek bezalako ekintza neurtuak eta diskriminatuak bestelako sarraski horiekin nahasteko aukera handiagoak ematen baitzizkio etsaiari.


- Faktore teknikoa. Borroka armatua garatzea, ETAk historikoki egin duen moduan (selektiboa, unean araberrakoa eta alboko ondorioak ekidinez), gero eta zailago bihurtu da.

Historikoki nagusi izan den printzipioaren arabera, eta orain berresten duguna, ETA erakunde politiko bat da, borroka armatua egiten zuen erakunde politiko bat. Nolanahi ere, borroka armatua uztea muin-muineko aldaketa izan da ETarentzat, bere egituratzat eta baita bere funtzioentzat ere. Ez du soilik bitarteko bat, borroka molde bat albo batera uztea suposatzen. Horregatik, estrategia aldaketaren ostean, ETArek funtzio eta ziklo historikoaren amaierari buruzko erabakia hartzea beharrezkoa izango zela bagenekien. Hori da 2017-2018ko eztabaida prozesu honetan ebatzi duguna.

3.2.- Erabakiaren oinarriak

3.2.1.- Lasaitasun estrategikoa. Herri prozesu demokratikoa egituratu eta prestatzea ibilbide mailakatua eta dinamikoa izango da, ez da bide erraza izango, kontraesan eta gorabeherarik gabekoa, baina arazoei eta bidean sor daitezkeen krisi egoerei aurre egiteko luzera begirako lasaitasuna eta konfiantza behar-beharrezko osagaiak dira.

Larritasunean eta epe laburretan ito gabe, lasaitasun estrategikoa behar dute Ezker Abertzaleak eta harekin batera herri prozesu independentista abiarazteko eta bururaino eramateko prest diren bidaideek. Prozesu hori garatzeak denbora eskatuko du, konfiantza irabazteko, soroa behar bezala landatzeko eta itzaropena argudio sendoz janzteko. Ezker Abertzaleak bere gaitasun politiko eta sozial osoa aktibatu behar du norabide horretan, askapen prozesuaren egungo fasean, helburua Euskal Estaturantz eramango gaituen ibilbide demokratikoa nagusi bilakatzeko baita.





Etapla berri batean sartu dugu Euskal Herria eta askapen mugimendua, 2011tik hona izandako ibilbideak orain arteko kultura eta ikuspegia eraldatzeko dugun zailtasuna erakusten badu ere. Erresistentzia hutsetik edo errepresioaren kontrako dinamikatik harago, etorkizuneko proiektuaren defentsara eta ofentsibara pasatzea kostatuko da.

Dena den, etorkizun horretan konfiantza izateko arrazoiak izan baditugu. Azken 60 urteotako ziklo historikoan nazio suspertze bat gertatu da, independentzia eta sozialismoa helburu dituen proiektu politikoa sektore zabaletan errotu da, borroka ideologikoan aurreratu eta zenbait ideia nagusi bilakarazi ditugu euskal jendartearen, Espainiarekiko arrakala handitu egin da, helburu horien inguruan herri indarra eta borondatea pilatuz joan da. Hots, askatasunaren bidean aurrera egiteko nahikoa oinarri jarri du ezkerreko independentismoak, hori da daukagun bermea, eta horrek aipaturiko lasaitasunez eta segurtasunez aritzeko aukera ematen dio ETARI.

ETAK bere ibilbidea amaitutzat eman dezake, ez bide hori azken bururaino egin dugulako, bistan baita oraindik gure helburuak ez direla erdietsi, baina ezta bidea itxita dagoelako ere. Bideari beste modu batez segitu behar zaiolako diogu ETAK bere ibilbidea amaitutzat eman behar duela. Argi baitugu antolakuntza eredu eta borroka moldeak lanabesak direla, prozesuaren eta helburuen arabera moldatu behar direnak.

Ez dugu hau guztia boluntarismotik edo determinismotik esaten, ezta gutxiagorik ere. Kontziente gara askapen prozesua ziklo negatiboetan ere sar daitekeela. Esan nahi duguna zera da: askotan itolarriaren sentipenak estutzen bagaitu ere, orain arte egindako lanari esker fase berrietara egokitze nahikoa berme dugula, ETAK baduela bere kapital politikoa non jarri.

Edozein kasu, abiarazitako bide honetan konpromisoa berritu behar du ezkerreko independentista orok, baita ETAREN itzalpean aritutako guztiok ere. Denon ekarpena beharko baitu prozesu independentista egituratzeko, indartzeko eta azken bururaino eramateko ahaleginak.

ETAREN bukaera ez da gure borroka bidearen epilogo. Hemendik aurrerako bidea idatzi gabe dago eta neurri batean arrakastarako gakoa gure baitan dago.

3.2.2.- Estrategia independentistaren eraberritzea. Askapen prozesuaren motorra izan den eta den Ezker Abertzaleak erronka finkatua dauka: mugimendu independentista zabal eta sendo bat sortzea, herri prozesu demokratiko bat abiarazteko egin-

beharrarekin.

Egoera hori ahalik eta azkarren lortzeko, ETAK, bere erabakiaren bidez, bere aldetik sor ditzakeen baldintza guztiak bultzatu nahi ditu.

Eskaintza independentistaren birsortzea lagundu

Alde batetik, independentismoaren aldeko hautua gero eta sektore gehiagok berea egiteko, eskaintza politiko horrek euskal herritarren gogo eta nahiak hobekien asetzeko proposamenik egokiena izan behar du, eta horretarako, arlo ezberdinetan, nahi eta gogo anitzak dituztenentzat eta ikuspuntu ideologiko desberdinetako sektoreentzat erakargarria izan beharko du. Euskal nortasuna eta kultura, guztion askatasuna eta herritarren eskubide sozialak eta ekonomikoak bermatzeko eta garatzeko egitasmo integrala behar du izan.

Beste alde batetik, indar metaketa independentista ahalik eta zabalena lortzea lehen mailako erronka izanik, atzo arte prozesu politikoaz eta gatatzaz ikuspuntu ezberdinak, eta zenbaitetan elkarren kontrakoak, izan dituzten sektoreak elkartu behar dira. Prozesu independentista ezker abertzalearen ibilbidearen garapen soiltzat hartzen bada, ez du behar adina indarrik pilatuko. Akats politiko handia litzateke. Euskal jendartearekin bat egiteko bideak jarri behar dira, gehiengo berriak osatu eta indar harreman berriak sortzeari begira.

Horregatik, etorkizuna partekatu bat erakitzeke, baztertu du ETAK beste sektore horiei guztiei bere kontakizun borobil-borobila inposatzen saiatzea ere. Ezker Abertzaleak ez dio bere buruari uko egingo, ETAK (autokritika inoiz baztertu ez arren) ez du egindako ekarpenaz arnegatu, baina ez die Euskal Estatuaren bidea egiteko prest direnei ETAREN erabateko legitimazioa eskatuko.

Eta horrek badu, nahitaez, ondorio bat Erakundearen funtzio historikoari dagokionez, ez bailuke inork ulertuko gure burua prozesu independentistaren gidaritzat edo erreferentziatzat aurkeztea. Halako mugimendu zabal eta askotariko batek nekez jasango luke ezkutuko erakunde baten esku-hartzea, borondate eta asmo onenekin izanda ere. ETAK uko egiten dio inolako prozesuren zaindari edo begirale funtzioa betetzeari.

Antolakuntza eta kultura politiko berria sortu

Estrategia eta fase berriak lan egiteko eta antolatzeko molde berriak eskatzen ditu ezinbestean, baita harreman politikoak eta borroka egiteko ahalegin zaharberrituak ere. Zikloz aldatzeko, agortutako estrategia

eta tresnak gainditzea ezinbestekoa da.

ETAk ezin dio errealtate horri ezikusiarena egin, bere funtzio historikoari eragiten dion neurrian, zuzendaritza politikoa ez baitagokio beste garai batzuetan zegokion mailan eta eran, ezta gutxiagorik ere. Errealitate hori, dena den, ez da egun bate-tik bestera gertatu. Erreferentzia bakarra izan zen hasiera batean ETA, gerora abangoardia funtzioa aitortu zion askapen mugimenduak, eta horrek kohesiorako gaitasuna eta norabidearen gaineko autoritatea eman zion. Ondoren, printzipio horiek malgutuz joan ziren, eta zenbait gertaerek zein prozesua beraren heldutasunak eredu aldaketa beharrezkoa izango zela iragar-tzen zuten. Esate baterako, Anoetako Proposamenak zekarren bi errailen eske-mak zuzendaritza fronte politikorantz lerra-tu behar zela suposatzen zuen.

Antolaketa ereduak aldaketa kualitatiboa dakar horrek. Eta ondorio sakonak ditu, esaterako, indarrean izan den militantzia kulturen. Egun borroka armaturik gabeko Ezker Abertzalera lotu den belaunaldi mili-tante gazte bat dugu eta ezkerreko inde-pendentsismoaren erreferentzia politikoa berriki eraikitzen ari dira, besteak beste.

Gorabeheratsua eta kontraesankorra izan den prozesu luze horrek behar bezalakoa erritmoa izan ote duen eztabaidagai izan daiteke, baina, halere, bista-bistakoa hauxe da: oraingo honetan eredu aldaketa erabatekoa dela ETAk historian zehar izan-dako rolari dagokionez. Askapen borrokaren egungo ezaugarriak so eginez, ETari ez dagokio inolako zuzendaritza funtziorik jokatzea.

Gatazkaren ondorioen konponbidea estrategia independentistaren baitan koka-tu

Errealitateak dio ez dagoela Estatuekin akordio baten bidez epe laburrean/ertainean gatazkaren konponbidea lortzerik, ez gatazkaren muinari dagokionez ez ondo-rioei dagokienez. Horrenbestez, gatazka politikoaren eta bere ondorioen konponbi-deak Euskal Herriak bere askatasuna lortzeko dinamikekin batera egingo du aurre-ra. Soilik prozesu orokorrak aurrera egiteak alda dezake egoera modu erabakigarri batean.

Errealitate horrek, haatik, ez du galaraz-ten epe laburrean urratsak egitea eta emaitza partzialak lortzea, itxaron gabe askapen prozesuaren epe luzeko uztari. Kasu batzuetan premia dagoelako hainbat arazo eta egoera lazgarri aterabidea ema-teko, eta, beste batzuetan, urrats horiek fase aldaketa egiteko borondatea argiki azalduko dutelako, iragana atzean uzteko eta etorkizun berri bat eraikitzeko bidean.

Jakinda aurrera urrats guzti-guztiak izango direla mesederako eta eremu batzuetan eginikoak besteetan ere eragina izan deza-keela.

ETari ere badagokio egoera hori erraztea. Eskema klasikoa erabat erreta zegoen aspaldi, ETak gobernuei armak presoenga-tik akordio bat eskaintzea blokeatutako bidea zen, estatuak blokeorako profitatu dutena, gainera. Eta berdin, antzua da ETaren iraupena presoan auziaren kon-ponbideari lotu nahi izatea. Horregatik jarri dugu konfiantza gure herrian, gure ekime-nen hartzaile bihurtuta, euskal herritarrek, bere ordezkari politiko eta sozialen bidez, gizarte zibilaren aktibazioaren bidez, kon-ponbidearen agenda osoaren defentsa beregain har dezaten.

Gaur da eguna non gizarte zibila bere eki-menen bidez gatazkaren ondorioei aterabi-dea emateko ahaleaginean sakontzen ari den, konponbideak osoa izan behar duela aldarrikatuz. Hainbat eragile, erakunde eta erakundetako ordezkari konpromisoa agertzen ari da preso politikoen aferari irtenbidea emateko. Ezker Abertzaleak ere gatibu diren militante politikoen ekarpena bideratzeko ahalegina indartu du. Ekimen horietan sakonduz, euskal presoak etxera-tzeko erronka Euskal Herriaren erronka bihurtu behar dela uste dugu.

Horren baitan kokatzen ditugu euskal preso eta iheslari politikoen kolektiboek hartu dituzten eta hartu beharko dituzten erabakiak. Ez dagokio ETari haien ildoak finkatzea edota haien jarduna gidatzea. Haiei soilik dagokie ondorioetara iristea, berriki EPPKren eztabaidan egin duten bezala, haien burua Ezker Abertzalearen estrategiaren baitan birkokatuz. Horrela, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak espe-txe frontearen esponente izatetik prozesu politiko independentistaren adierazle eta aktibo izatera pasako dela iragarri du, alde-bikotasunaren zain edo ezintasunean ins-talatuta egon gabe. Zio horrekin, gauza zehatzei, legalitatearen azken zirriketua ere borrokatuz eta landuz, ekin beharko diote, irtenbideak bilatzeko, lorpenak eskuratzeko eta indar harremanean eragiteko. Helburu argi batekin betiere: kartzelak ahalik eta lasterren hustea.

Jendartearen aktibazioan lagunduko duen diseinuan eta konfrontazio eredu berrian sakondu

Estrategia aldaketa arte, ETaren jardun armatua izan da egoera politikoa astindu, eztabaidak piztu eta agertoki berriak azkar-tu dituen faktore nagusietako bat, nagusie-na izan ez bada. Estatuarekin talka horre-tan agerian utzi du konpondu beharreko gatazkaren errealtatea, etengabe. Borroka

ETako militante izan dena militantzia horrek dakarren ardurarekin aritu beharko da aurrerantzean ere. Aurreko fase-etan gure onena emateko prest egon garen kideok, neurri berean jarraitu behar dugu gure borroka konpromisoa bideratzen

armaturik gabeko testuinguruan, premiazkoa da konfrontazio politikoaren eredu berriak sortzea, normalitate faltsuaren arrisku oro ekiditeko. Estrategia berriak konfrontazio modu berria ekarri behar du ezinbestean. Oraingoan dinamika soziala, politikoa eta instituzionala dira estatuekin talka hori eragin behar dutenak.

3.3.- ETArek erabakia: Euskadi Ta Askatasunaren ziklo eta funtzio historikoa- ren amaiera

ETArek zeregin historikoa ikuspegitik, estrategia politiko-militarraren bukaerak markatu zuen Erakundearen zikloaren bukaeraren hasiera:

- Borroka tresnen aldetik, borroka armatua izan baita askapen prozesua aurrera eramateko ETAk erabili duen borroka molde nagusia.

- Estrategiaren aldetik, negoziazio ereduaren agortzearekin eta helburu taktikoen gaineko irakurketa berrituarekin (ez dugu ezinbestekotzat jotzen aurretik estatuekin akordio demokratiko bat erdiestea, Euskal Herria eta autodeterminazio eskubidea aitortuak izan daitezkeen).

- Askapen mugimenduaren baitan betetzen dituen funtzio politikoen aldetik, estrategia aldaketarekin batera bere abangoardia izaera eta bere protagonismoa aldatu egin zirelako.

ETArek zikloa, berez, amaitu da dagoneko. Orain arte ezagutu dugun eta konfrontazio parametro zehatz batzuetan gartatu den Erakundearen bere ibilbide historikoa, bere militantzia eta bere proiektu politikoa gelditzen zaizkio. Bere kapital politiko-historikoa eta bere kapital humanoa.

Horrenbestez, ETArek, ohiko antolakunde baten gisan, egoera berrian ezin zaio jarraipenik eman, horretarako gainerako guztia berrasmatu beharko genuke-eta: estrategia, funtzio politiko zehatzak eta borroka edota eragiteko tresnak.

Egia da ETA antolakunde politiko gisa sortu zela eta izaera politiko horri eutsi diola gaur egun arte. Hau da, borroka armatua baino askoz ere gehiago izan dela Erakundea. Eta egia ere bada bere proiektu politikoa gauzatu gabe duela. Baina ezin da ahaztu ETArek lorpen nagusienetakoa zera izan dela: bere proiektu askatzailearen inguruan mugimendu oso bat sortu eta hazi izana eta herri sektore zabalak blaitu izana. Beraz, bada independentziaren eta sozialismoaren aldeko lanari jarraipena emango dionik.

ETArek proiektu politikoa aspalditik ez da bakarrik Erakundearena. Ezker Abertzalea deitzen dugun mugimendu politikoak, gainera, heldutasun eta borroka gaitasun aski-

rik erakutsi du hamarkadotan. Egun dugun erronka politikoa gauzatzeko askoz ere eraginkorragoa da. Beraz, ezin dugu jokatu ETArek hasieran egongo bagina bezala eta ezin dugu gure egoera mugimendu politikoa bilakatu diren antolakunde armatuekin parekatu ere. Hasierako ETA aspaldi bilakatu baitzen mugimendu politiko: Erakundearen baitan fronteen arabera antolatuz, hasieran, eta hazi horretatik sortu zen eta bilakaera propioa izango zuen Ezker Abertzalearen sorrerarekin, ondoren.

Armagabetzeak erakunde ez armatu bilakatu du ETA. Alternatiba ezin da izan, ordea, erakunde zibil bihurtzea, nolabaiteko autoritate moral bat mantentzearen. Sortu beharreko gehiengo zabalak, zabal-zabala bada, ez luke ulertuko. Eta guk ere uko egiten diogu ezkutuko erakunde gisa bizirauteko aukerari, jakin badakigun arren ETArek erreferentziatzko erakunde eta kohe-siorako elementu izaten jarraitzen duela askorentzat.

Bestalde, amaiera emateari uko egin dioten beste erakunde armatu batzuen adibideak hortxe ditugu. ETArek esperientzia horiek aztertuta ondorioztatzen duenez, denborarekin nahasmena eta deskapitalizazioa begien bistakoak izan dira, sigla fantasmak bihurtzeraino.

ETArek irakurketaren arabera, irekitzen ari den fase politikoan, eskaintza independentista berritzeak eta independentziaren aldeko gehiengo osatzeak izan behar dute ardatza. Horretarako orain arteko ibilbidean batu genitzakeen baino sektore gehiago metatu behar dira (autonomismo-tik, erdal estatualismo-tik edo belaunaldi berrietatik etor daitezkeenak). Egoera hori ahalbidetzeko ETArek zikloa erabat ixtea beharrezkoa da. Beharrezkoa baina ez, bere horretan soilik, nahikoa. ETArek amaierak ez baitu, berez, halako herri suspertze bat ekarriko. Alta, prozesuan aurrerabideak lortzeko eta egoera berriak sortzeko ezinbesteko osagaia da gure erabakia. Uzta epe luzeagoan jasoko dugu.

Horregatik erabaki dugu aldebakartasuna muturrera eramanez jardutea. ETArek ibilbidea amaitutzat emanez, gatazka armatuaren aroa eta horri lotutako egoerak erabat itxiko ditugu guri dagokigun alorrean, gure indar guztiak prozesu politikoaren azkartzeari eskaintzeko.

ETArek bere erabakia ezereen eta inoren zain egon gabe hartu du. Estatuen aldetik aldebikotasun eta negoziazio aukeren zain egon gabe, noski. Baina Euskal Herrian prozesu independentistaren garapenaren heldutasun mailari beha egon gabe eta baldintza egokiak noiz iritsiko zain egon gabe ere. Izan ere, azken erabakia eremu guz-

tietan baldintza egokiagoak sortzeko asmoarekin hartu dugu, aro berria behin betiko zabaltzen saiatzeko eta bitarteko soilik demokratikoak erabiliz garatuko den prozesu independentista errazteko. Aurrerantzean, inork ezingo du halako ibilbide bat oztopatzeko ETArek iraupena galgatzat edo aitzakiatzat erabili.

Amaieraren urrats hau orain artean ETArek gauzatu dituenen segida naturala da, azken urteotan prozesuak izan duen bilakaeraren ondorio logikoa besterik ez. Eta uneotan Ezker Abertzaleak eta ETArek berak egiten duten gogoetarekin koherentzia doan erabakia da.

Tamalez, konponbide prozesuak orain artean izan duen izaerak behartuta, ETA desegiterakoan oraindik gatazkaren ondorioei lotutako gai garrantzitsuak itxi gabe eta burutzeke garatuko dira. Segur, gatazkaren ondorioen kudeaketarako bestelako eredu adostu batek gauzak erraztuko lituzke, baina edonola, aurrerantzean ere zeregin horiek, ETA gabe, berme nahikorekin bideratzeko moduak izango direla uste dugu, konponbidearekin konprometituriko gizarte zibilaren, eragile politiko eta sozialen, erakundeetako ordezkarien eta nazioarteko eragileen eskutik.

Honenbestez, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokari beste bide batzuetatik jarraipena emateko mugarririk gisa ulertzen dugu erabaki hau. Aurrera egiteko orain eta etorkizunerako egiten dugun hau-tua da, eta horretarako oso garrantzitsua da ETArek inguruan sortu den indar militante guztiak herri mugimendu abertzale eta independentistetan bere ekarpena bideratzen jarraitzea. Fase politiko honek denon indarra eta gogoia beharrezkoa izango duelako.

ETArek gabe, baina Erakundean egonda-ko militanteen beharra egongo da, urteotan izandako balore, konpromiso eta erabakitasuna askapen mugimendu eraginkorrako bat sortzeko baliatuz, pilatutako ondare militantea etorkizuneko ibilbidearen mese-detan jarritz.

ETArek militante izan dena militantzia horrek dakarren ardurarekin aritu beharko da aurrerantzean ere. Aurreko faseetan gure onena emateko prest egon garen Erakundearen kideok neurri berean jarraitu behar dugu gure borroka konpromisoa bideratzen.

ETArek zikloaren amaiera erabakiaren ondorioz, Euskadi Ta Askatasuna erakundea desegin egingo da. Erabakia Azken Adierazpen publiko baten bidez jakinaraziko da. Horren ondotik, ETA ez da jada beste eragileak interpelatzeko dituen eta beste eragileek interpelatzeko duten eragile-iza izango.



Lurraldetasunaren auzian, arazoa soluziobide bilakatu

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko ibilbideko ardatz nagusietako bat lurraldetasuna dugu. Gai honek formulazio ezberdinak izan ditu urteotan, betiere norabide bat zehazteko gogoz: lurraldetasuna arazo izatetik Euskal Herriaren gerorako lanabes izatera pasatzea.

Euskal Herria herri zapaldua izateaz gain, herri zatitua ere bada. Frantzia eta Espainiaren baitan erdibitua, Euskal Herriak bi estatu-nazioen asimilazio prozesuak pairatu behar izan ditu. Alde batean, frantses hiritar egin nahi izan gaituzte, euskal nazio sentimendua desagerraraztea helburu zuen prozesu maltzur baten bidez, non euskal nortasunaren ezaugarriak turistetzako karta postalen apaingarri soil bihurtu nahi izan dituzten. Beste aldean berriz, espainiar izateko sentimendua eta ideologia inposatu nahi izan dizkigute, baliabide ezberdinak erabiliz, bortxazkoak barne. Estatu nazio bakoitzaren eraginpean gure herrian iruditeria eta erreferentzia arrotzak sustraitu dira, indarrez inposaturiko barne muga fisikoak indartu eta ustez berezkoak bihurtzeraino. Ondorioak begien bistakoak dira. Espainiak eta Frantziak lurralde zatiketan eraiki duten lehen lubakiaren eraginpean, Euskal Herrian egoera ezberdinak bizi izan ditugu. Lurraldetasunaren auziak Euskal Herriak bere osotasunean pairatzen duen zapalkuntza irudikatzen badu ere, bi estatuekiko askabideak eta konfrontazioak bilakaera ezberdina izan du, eta jendartearen pertzepzioa eta abertzaletasunaren garapena ere ez dira berdinak izan.

Euskal gogoaren berpizkundea

Frankismoaren itzalpean sortu zen ETA, errepresioari erantzuteko eta Euskal Herriaren defentsa irmoa egiteko helburuarekin. Zapalkuntzarik bortitzenak eragiten zuen etsipena eta esperantza ezaren aurrean, euskal nazio kontzientzia berpiztu eta Euskal Herriaren aldeko indarrak askatasunaren bidean bildu zituen. Eta, horrekin batera, Euskal Herriaren suspertze politiko, sozial eta kulturalari bultzada handia eman zion.

Haatik, euskal gogoak luzagabe zazpi euskal lurraldeak zipriztindu zituen. Errepresioaren atzaparretatik ihesean, erresistentziaren hautua egin zuten gazteek Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan aurkitu zuten aterpe eta babesleku. Mundu zabalean deskolonizazio prozesuen garaiak ziren hauek, eta Algeriako independentziaren aurkako gertarenak Frantzia, hainbat eta hainbat euskal gazte aljeriarren aurka borrokatzeri behartuta egon zirelarik. Horrek eta euskal iheslarien joan-etorriak Ipar Euskal Herrian euskal nazio kontzientzia berpizten lagundu zuen. Luzagabe, hasierako elkartasun keinuez harago, Ipar Euskal Herriko hainbat herritarrek ETA laguntzeari ekin zioten, baita gerora kide egin ere. ETA izan da Euskal Herri osoko kideak elkartu dituen lehen erakundea.

Frantses Estatuaren zapalkuntzari aurre egin beharraz lehen gogoetak garai hartakoak dira. Baita lehen ekintzak ere, ETA erakundetik bereiziz Iparretarrak erakundea sortu zuten ekintzaileen eskutik. Frantziako Gobernuaren erantzuna ere berehalakoa izan zen. 1974ko urtarrilaren 30ean, Raymond Marcellin Barne ministroak dekretu bidez Enbata alderdi politikoa legez kanporatu zuen ustez ETArekin harremanak zituelakoan. Desegin berri zen alderdiko kideek, 1975ean, Euskal Herriko Alderdi Sozialistaren (EHAS) sorreran parte hartu zuten, Euskal Herri osoko lehen alderdi politiko abertzale eta sozialista izango zena.

Franco diktadorearen heriotzaren ondorengo urteetan Hego Euskal Herriko karrikek aldaketa politikoa aldarrikatzen zutela Ezker Abertzaleak KAS alternatiba plazaratu zuen euskal demokraziarako bidean gutxieneko oinarriak zehaztuz. Bertan Hego Euskal Herriko autonomia zabaleko estatutua eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen ziren.

Haustura demokratikoaren hautabidea

Frankismoaren ondorengo erreformak Euskal Herriaren eskabideei erantzuten ez zela eta gutxieneko baldintza demokratikoak ematen ez zirela erreparaturik, Ezker Abertzaleak Xibertako elkarrizketetan indar abertzale guztiei Euskal Herriaren aldeko estrategia bateratua eskaini zien. Tamalez ez zen lortu. Are, burujabetza asmoa Espainiako marko autonomiko zatikatzalean asetzerik baze-goela iritzita, batzuek kudeaketa autonomikoan murgiltzea deliberatu zuten.

Ezker Abertzaleak ez zuen amua irentsi eta haustura demokratikoaren hautua egin zuen. Horrela, erreformaren ondorengo aldian ere Euskal Herriaren eskubideen defentsari ekin zion, euskal nazioa eraikitzeke lanean buru-belarri jardutearekin batera. Euskal Herriaren desagertzea bilatzen zuen amaraun juridiko-politikoaren aurrean ETak erabaki garrantzitsua hartu zuen: borroka armatuarekin jarraitzea. Hego Euskal Herrian aldaketa politikorako baldintzak ematen zirela iritzita, ETak gogor ekin zion borrokari, gatazkari, elkarrizketa eta negoziazioaren bidezko konponbidea proposatuz aldi berean.

Lurralde zatiketan oinarritu estrategiak

Ordu hartan, Ezker Abertzalearen hautabideek estatuak eragin lurralde zatiketan zuten abiapuntu, eta iruditeria kolektiboan kokatzen zen zazpi herrialdeak batuko lituzkeen Euskal Herriaren ametsa. Praktikan, estatuak inposaturiko mugaren alde batean Ezker Abertzaleak lau herrialdeak barnebiltzen zituen programa eta estrategia politiko bat hobetsi zuen, Ipar Euskal Herrian berriz hiru herrialdeen ezagutzaren aldeko proposamenak eta estrategia zehazten hasiak zirelarik.

Preseski, frantses Estatuaren aurrean

borroka fronte berria irekitzeko gogoetak luzagabe Ezker Abertzalean tentsio iturri bihurtu ziren. Eztabaida korapilatzen ari zela, 1978an Iparretarrak erakundeari borroka armatua ez egiteko eta fronte berri bat ez zabaltzeko eskaria luzatu zitzaion.

ETAren ustez, Ipar Euskal Herrian ez zen borroka armatua garatzeko baldintzarik ematen, eta lehentasuna euskal kontzientzia biziberritzeko eginkizunek zuten. Hego Euskal Herriaren askabidean epe ertainean urrats sendoak emateko baldintza objektiboak hautematen zituen ordea. Hortik, lehendabizi Hego Euskal Herria askatu eta ondoren Ipar Euskal Herriaren ordua etorriko zeneko hipotesia. Fronte berri bat sortzeak frantses Gobernuaren errepresioa areagotuko zueneko kezka ere agerikoa zen, eta iheslarien nahiz Ipar Euskal Herrian zegoenik ere ezagutzen ez zen bere egituraren aurkako jazarpenaren beldur zen ETA.

Gauzak horrela, ETAk fronte bakarraren aldeko apustua egiten zuen bitartean, IK-k berriz bi fronteent batura lehenesten zuen. Ipar Euskal Herrian Ezker Abertzalearen bilakaera ezaugarritu duen zatiketa gertatu zen, zatiketa mingarria, indar askatzaileak soberan ez ziren herrialdeetan.

Estatu biek, ordea, ez zuten erreparazio handiegirik izan Ezker Abertzalea indargabetzeko eskuz esku aritzeko orduan. Iheslarien aurkako gerla zikinak Ipar Euskal Herria kolpatzen zuen une berean frantses Estatuak errepresioa areagotu zuen. Erantzun moduan, ETAk 1979tik 1995era frantses interesen aurkako ekintza armatuak burutu zituen, Hego Euskal Herrian eta espainiar Estatuan lehenik, eta Europan barrena ondorik, gertatzen zena gertatu Estatu frantsesean ekintzarik ez egiteko erabakiari eutsiz.

Garai berean, Ezker Abertzaleak frantses produktuak boikotatzeko kanpaina iraunkorra gauzatu zuen.

Ziklo baten agortzea

1978an Ezker Abertzaleak abiatu zuen borroka zikloaren ezaugarrien agortze zantzuak 1989an ETako ordezkariak Aljerian espainiar Gobernuarekin izan elkarriketen biharamunean agertzen hasi ziren. Borroka armatuaren eraginkortasunaren eta hauteskunde batetik bestera Ezker Abertzaleak jasotzen zuen babes gero eta handiagoaren arteko osagarritasunak funtzionatzen zuen, baina borroka armatuarekiko menpekotasun politiko eta estrategikoa gero eta handiagoa izaten ari

zen. Elkarriketa prozesuaren hausturak, ordura arte garaturiko estrategia negoziatzailearen mugak irudikatzeaz gain, Ezker Abertzalean noraeza eragin zuen. Krisia sakondu baino ez zen egin 1992an erakundearen zuzendaritzaren aurkako operazioaren ondorik. Izan ere, Ezker Abertzalea bi estatuek gatazka konponbidean jartzeko borondatea noiz agertuko zuten zain zegoen bitartean, Euskal Herriaren ezaugarri nagusiek desegituratzen jarraitzen zuten.

Ezker Abertzalearen lorpenak ez ziren txikiak, baina estatuek inposaturiko lurralde zatiketaren arabeko estrategiak euskal nazio ikuspegiaren garapenean eta gauzatzean oztopo bihurtzen hasiak ziren. Ezker Abertzalearen zerumugak nekez gainditzen zituen estatuek inposaturiko muga eta marko autonomiko zatikataileak. Eta apenas garatzen zen lurraldetasunaren lan ildorik. Izan ere, Baskongada/Nafarroa eta Hego/Ipar eskema hertsia erabat barneratuak zituen.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, IK eta ETAren artean gertaturiko zatiketaren ondorioz Ezker Abertzaleak ez zuen lortu frantses Estatuari begira garatu beharreko estrategia eraldatzea eta adostea. IK-ren inguruan antolatu zen ezker abertzaleak soilik Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoa zituen eragin gune, baina ETAren inguruan bildutakoak bere ikusmira Euskal Herri osoan kokatzen bazuen ere, ez zen gai izan Ipar Euskal Herriarentzako asimilazio prozesuari aurre egingo zion estrategia politiko eraginkorrik proposatzeko.

Hego Euskal Herrian prozesua luzatzen zihoan heinean, are agerikoagoa egin zen Ipar Euskal Herrian Ezker Abertzalearen programa eta estrategia politiko bateratu baten gabezia.

Bihurgune estrategikoa: nazio eraikuntza eta lurraldetasuna ardatz

Krisiaren gorpil zorotik atera eta Ezker Abertzalea etorkizunari begira birkokatze-ko helburuarekin 1994ko urte bitartean Txinaurri izeneko gogoeta-aldia bideratu zen. Euskal Herri osoan gauzatu zen eztabaida prozesuan Ezker Abertzalearen estrategia eraberritzeko ezaugarri nagusiak adostu ziren. Besteak beste, erresistentzia fasetik herri eraikuntza estrategia- ren garapenera jauzi egitea erabaki zen, hots, arloz arlo eremuak berreskuratzen hastea erabakitze-ko eskubidea noiz aitortuko zain gelditu ordez.

Haatik, erresistentzia strategiaren garapenean lurralde zatiketa aintzat hartu bazi-



tekeen, nazio eraikuntza hautabideari lotzeko ezinbesteko bihurtzen zen Euskal Herri osoari begirako estrategia zehaztea, eta Euskal Herri osoa bere aniztasunean aintzat hartuko zuketzen eragile, joko arau eta eremu berriak sortzea. Nazio estrategia zehazteko, lantzeko eta gauzatu ahal izateko Euskal Herri guztia bildu/ordezkatuko zuten egituren premia gorria agerian gelditzen hasi zen.

Ezker Abertzalearen baitan gertatu zen aldaketa nagusia Alternatiba Demokratikoa izeneko proposamenak irudikatuko zuen orduan. Proposamenaren lehen atalean estatuekin adostu edo negoziatu beharreko aldagai gisa autodeterminazio eskubidea agertzen zen. Bigarren atalean, berriz, autodeterminazioa prozesu dinamiko gisa ezaugarritzen zen, Euskal Herriko eragileen artean adostu beharreko prozesu praktikiko eta mailakatu bezala hartuta. KAS Alternatiban ez bezala, Euskal Herri osoa aintzat hartzen zen, bistatik galdu gabe, helburu berdina lortzeko, bidean, lekuan lekuko errealitateen araberrako tarteko urratsak zehaztu beharko zirela.

Ipar Euskal Herrian deigarriak izan ziren Ezker Abertzalearen baitan finkatu aldaketan ondorioak. Ordura arte sakabanatuak ziren ezkerreko abertzaleen arteko konfluentzia dinamika sendo bat abian jarri zen, eta hainbat aldarrikapenen inguruan indar harreman eta mobilizazio jendetsuak abiatu ziren, batez ere berezko instituzio baten aldarriaren inguruan.

Garai berean, Erakundeak IKrekiko harreman bideak zabaldu zituen, gogoetak eta iritziak trukatu asmoz, eta Ezker Abertzaleak frantses Estatuarekiko ikuspegi bateratua lortzeko helburuarekin.

1998ko ekimena: prozesu politikoaren azkartzea

1998ko ETaren ekimena inflexio puntu garrantzitsua izan zen eta prozesuaren azkartzea eragin zuen. Ekimenak indar abertzaleen arteko akordioa oinarri zuen eta burujabetzaren bidean urrats sendoak ematea zuen helburu. Hortaz, lurraldetasunaren ikuspegia praktika politikoaren ardatz egiten asko lagundu zuen, esate baterako, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoa Euskal Herriko beste lurraldeekin batera eszenatoki politikoan txertatuz. Aldi berean, Euskal Herriaren instituzionalizazioaren ikuspegia zabaldu eta lehen urratsak eman ziren, Udalbiltzaren sorrerarekin. Hala ere, azpimarratzekoa da ekimenaren ibilbidea eta funtsa ez zirela behar

bezala barneratu. Nagusiki ekintza armatuen etenaldiari loturiko ekimen gisa ulertu zen, eta ez Euskal Herriaren eraikuntzaren gauzatze praktikoaren abiapuntu bezala. Guztiok izan genuen ardura egoera hari irismen luzeagoa ez emateko orduan.

Nazio erakundetzearen apustua eta estatuen eraso bortitza

Ekintzen etenaldiaren amaieraren abagunean, Ezker Abertzaleak nazio mailako estrategiaren zehaztapenean eta egituratzean urrats sendo eta berriak eman zituen, gazte esparruan lehenik Haika erakundearen sorrerarekin. Alabaina, ekintza armatuak berriz abiatzearen inguruko ezadostasunek hautu estrategikoen funtsezko eztabaida estali eta itxuraldatu zuten. Gauzak horrela, Batasuna prozesua Ezker Abertzalearen barne zatiketa bikoitz batekin bururatu zen, Hego Euskal Herrian Aralarren sorrera eragin zuena eta Ipar Euskal Herrian ABren barne zatiketa.

Euskal Herriak bizi zuen egiturazko egoera egiturazko neurri eta egitasmoak abian jarri eta garatuz gainditzien joango zeneko konbentzimenduak gidaturik, Ezker Abertzaleak nazio erakundetzean sakontzen jarraitu zuen, bai eta Euskal Herriaren instituzionalizazio nazionala sustatzen ere.

Lizarra-Garaziko esperientziak erakutsi zuen ahalmenak Estatuan alarma gorria piztu zuen eta eraso estrategian urrats kualitatiboak ematea erabaki zuen legez kanporatzeen bidez. Azken helburua, Ezker Abertzalea oinarri sozialik eta erreferente politiko instituzionalik gabe uztea izan zen, horrela nazio eraikuntzan sakontzeko aukerak indargabetuko zituelakoan. Ez da kasualitatea bi estatuek lurralde egituraketan urratsak emateko Euskal Herrian abian jarri ziren hainbat proiektu estrategikoren edo subjektu sozial-politikoaren aurka egin izana, Udalbiltzaren aurkako eraso izanik adibiderik esanguratsuena.

Estatuen jazarpenak lurraldetasunaren auzian eragindako kalteak ezin dira gutxietsi. Bizkitartean, Ezker Abertzaleak nazio erakundetze prozesuak garatzeko moduen eta denboren kudeaketan egindako akatsak azaleratzea ere komeni da. Ez zuen behar besteko gaitasunik izan apustu estrategikoaren funtsa azaltzeko orduan.

Prozesu bateratua baino gehiago prozesu bateratzailea

Lizarra-Garaziko garaia atzean utzi ahala, proposamen politikoa berritzearen beharra

agertu zen. Lurraldetasuna ardatz gisa jarrita ere, Euskal Herri osorako prozesu konstituziogile bakar eta bateratu bat egiteko proposamenak ez zuen biderik egin.

2004. urtean "Orain Herria Orain Bakea" plazaratu zuen Ezker Abertzaleak. Lurraldetasunaren irizpidearekin batera, proposamen politikoa eremu zehatz bakoitzean egokitu behar zela argiago ondorioztatzen zen. Uztaritze/Anaitasuna proposamen taktikoak ditugu horren lekuko. Erritmo eta ezaugarri propioak kontuan hartu beharra zeuden.

Euskal Bideak, 2015ean, prozesu eratzaile egitea proposatu zuen, eta horretarako, gaur egungo errealitatea abiapuntu, hiru prozesu barnebilduko lituzkeen prozesu bateratzailea irudikatu zuen. Esan daiteke Ezker Abertzaleak geroztik egin dituen formulazioak bide horretatik etorri direla, ñabardurak-ñabardura. Azken batean, lurralde batasuna erabakitzeako eskubidea egikarizetik gauzatutako baita.

Aurrera begira

Garaian garaiko ezaugarri eta egoerak tarteko, nazio kontzientzia kolektiboa abiapuntu gisa harturik Ezker Abertzaleak Euskal Herriaren eraikuntza prozesua sustatzea izan du helburu. Nazio eraikuntza hautabidearen iturburuan ukazio egoera iraultzeko erabaki irmoa egon da. Gaur egun ere, eskubideen urraketa, erabakiak hartzeko ahalmen eza eta lurralde zatiketa dira herri gisa pairatzen ditugun egiturazko zapalkuntzaren ezaugarri komunak.

Lurraldetasuna aldarrikapen soil bat izatetik haratago, praktika sozio-politikoaren oinarri eta ardatz bihurtzea ezinbestekoa da, herri subjektua egunerokoan eraikitzen jarraitzeko, Euskal Herria nazio gisa bizi eta garatzeko. Nazio osoa aintzat hartzen duten dinamika sozialak, proiektu eta egitasmo estrategikoak, auzolan dinamika, edo elkar ezagutzeko eta laguntzeko ekimenak sustatuz.

Nazio gisa gorpuzten joateko eta lurralde artikulazioa gauzatzeko gaurdanik urratsak egin behar dira. Estatuaren aitortza politikoa- ren esperoan egon gabe, Euskal Herriaren etorkizuna orainean eraikitzea funtsezkoa dugu, subjektu politikoa gorpuztuz, lurraldea batuz eta nazio egiten gaituzten zurtio- nak etengabe garatuz.

Errealitate instituzional bakoitzean jardue- ra berezia egongo bada ere, egun bizi dugun zatiketa gainditu eta zazpi herrialde- ak batzeko aukera zabaltzen joatea ezin- bestekoa da.



ETAren ekinbide armatuaren bilakaera, askapen prozesuari lotutako ibilbidea

Ziklo amaiera
erabakitzeko
Erakundeak eginiko
eztabaida prozesuan,
ETAk bere ekinbide
armatuari buruzko
txosten mardul bat
egin zuen. Behar-
beharrezko ariketa
zen desegitearen
aurretik. Txosten
horretan oinarritutako
lerroak dira honakoak.
Bertan, borroka
armatuak gure herrian
izandako garapena
uler daiteke.

ETAren hasierako ekinbidea Erakundearen izena eta sorreraren arrazoiak herritarren artean ezagutzera ematera bideratu zen.

Erakundea sortu berria izanik, lehenengo ekintza haiek oso baliabide gutxirekin burutu ziren; hala nola, margoketak egitea, ikurrinak ezartzea edota ikur frankisten aurkako eraso sinbolikoak. Molde horien erabilerak argi adierazten du betidanik ETAren funtsezko ezaugarria izan dela herriaren ulermena eta babesa izango zuketek ekintzak burutzea.

Ondoko urteetan, propaganda armatuaren ildoak garatu zuen ETAk, bere antolaketa eta hedapenean urratsak egitearekin batera. Monumentu frankisten suntsiketak, frankista nabarmenen autoen erreketak, bandera espainolak erretzea... gehienbat horrelako ekintzak egin ziren. 1961ean, halaber, Donostiara zihoan frankistez beteriko tren bat deskarrilatzeko ekintza egin zen, eta 1962an, Franco oporraldiak igarotzen ari zen egoitzatik gertu lehergailu bat eztandarazi zen Donostian, diktadorea bera jomugan zuena. Euskal Herriak eremu guztietan jasaten zuen zapalkuntza latzari erantzun zuzena emateko ETAren asmoaren agerpena ziren ekintza horiek.

Espainiako Estatuko aparatuek segituan ulertu zuten ETAren ekinbideak zabaltzen zuen aro berriaren zentzua, eta euskal nazio askapen borrokaren susperraldi haren aurrean errepresioa hedatzeari ekin zioten, 36ko gerra osteko garaitik ezagutu gabeko neurriraino. Errepresio basa horrek herritarren kontzientzia hartzea azkartu egiten zuenez, ekintza-errepresio-ekintza

dinamikak Erakundearekiko herri atxikimendua eta borrokaren indarra handitu egiten zuen, ETA baitzen erregimen frankistari tinko erantzuten zion antolakunde bakarra.

Erronkari eusteko ETAk urrats berriak egin zituen bere antolaketan. V. Biltzarrean askapen borroka fase erasokorrako batera igarotzeko egindako hautuaren ostean, 1967tik aurrera Fronte Militarra egituratzeari ekin zitzaion, eta Erakundeak ekintza konplexuagoak burutzeko ahalmen operatiboa irabazi zuen. Izan ere, ordura arteko ekintzak armarik gabe eta leherkari oso gutxirekin burutuak ziren. Baina orain, euskal kontzientzia kolektiboan izandako pizkundearen ondorioz, herri sektore zabalak prest zeuden ekinbide sinboliko batetik jauzi berrietara igarotzeko.

Testuinguru horretan hartu zuen ETAk, 1968an, Meliton Manzanasko torturatzaile ezagunaren aurkako ekintza burutzeko erabakia. Manzanasko hil aurretik, 68ko ekainean, Pardines guardia zibila hilik gertatu zen eta guardia zibilek Txabi Etxebarrieta ETako gudaria hil zuten. Txabiren heriotzak arrasto sakona utzi zuen euskal jendearengan. Haatik, Meliton Manzanasko aurkako ekintza sarritan Txabiren heriotzari emandako erantzun gisa aurkeztua izan den arren, erabakia aurretik hartua zegoen, terrore frankistari eman beharreko erantzun orokor gisa.

Erakundeak pertsona bat hiltzeko prestatuturiko lehen ekintza izan zen eta, propaganda armatuaren ildoak gaindituz, jarduera armatu erasokorrako baterako urratsa iragarri zuen, ondoren etenik izan ez zuena

ETAk borroka armatua utzi arte. Inflexio puntu horretatik aurrera enfrentamendua areagotu eta ETArek ekintza armatuen kopurua emendatu egin zen.

Enfrentamendu dinamika horren erdian iritsi ziren espainiar diktadurak euskal erresistentziarekin amaitzeko eraturako Burgosko epaiketa eta ETako militanteen aurkako heriotza-zigorrak. ETAk, herri erantzun irmoa antolatzearekin batera, Euskal Herriaren askatasun nazionalaren aldeko borroka nazioartean entzunarazteko ekintza burutu zuen, Alemaniako Kotsula bahituz. ETAk burutu molde horretako lehen ekintza izan zen eta 24 egun iraun zituen.

1970. urte inguru hartan, ETAk ahalegin berezia egiten zuen ekinbide armatua berpizten ari zen herri borrokaren gainontzeko adierazpideekin uztartzeko. Fronte politikoa, kulturala eta Langile Frontearen bidez garatzen zen borroka osatzea zen batik-batik ildo armatuaren zeregina. Horrek azaltzen ditu, esaterako, garai hartan ETAk langatazka batzuetan zuzenean eragiteko egindako ekintzak, Lorenzo Zabala ugazabaren bahiketa 72an (4 egun), edo Felipe Huarte oligarkarena 73an (10 egun).

Horrela, gutxika handituz joango zen etengabeko herri mobilizazioaren eta presioaren bidez, erregimen frankista ahultzea, bere amaiera azkartzea eta Euskal Herriaren askatasuna lortzeko egoera berriak sortzea bilatzen zuen ETAk.

1973ko abenduan ETAk Espainiako Estatuari inoizko kolperik handiena eman zion: Carrero Blanco Espainiako presidentea eta Francoren ordezkoren aurkako ekintzak erregimen frankistaren amaiera azkartu zuen. Horrek erakutsi zuen ETArek borroka aldaketa politikoen eragile zela.

Ekintzaren arrakastaren ondorioz, ETAk prestigio handia irabazi zuen eta demokrazia eta askatasunaren aldeko borrokaren ikur bilakatu zen askorentzat, ez soilik Euskal Herrian.

Haustura demokratikoaren bila

Frankismoaren amaiera gertu egon zitekeela-eta, aldaketa esanguratsuak iragaritzen ziren. Estatu bera erregimenaren erreforma prestatzen ari zen Franco hil ordutik abian jartzeko. Juancarlismoa eta monarkia parlamentarioa ziren lekukoa hartuko zutenak. Garai mugituak ziren, eta errepresio handikoak, botere faktikoek etor

zitezkeen aldaketei mugak jartzeko eta guztiaren gainetik Espainiaren batasunaren printzipioa bermatzeko ahaleginetan zihardutelako.

ETA ere egoera berri horretara bere antolaketa eredua eta ekinbide politiko-militarra egokitzeko hausnarketa betean zen. Erakundearen egituratzeari zegokionez, fronteen arabera antolaketa eredua gainditu eta desdoblamenduaren aldeko hautua egin genuen, borroka politiko-sozialaren esparrua Ezker Abertzalearen erakundearen esku utziz, eta ETArek funtsezko zeregina borroka armatua egitera bideratuz (Polimilien zatiketa gertatu zen orduan).

Ekinbide militarri zegokionez, hasierako urteetan mantendutako insurrekzio armatuari buruzko teoria oro alboratuz, ETAk Euskal Herriarentzat gutxieneko demokratiko batzuk lortzera bideratu zuen borroka armatuaren funtzioa. Erreforma frankistaren ezarpen prozesua ekiditea eta haustura demokratikoa eragitea izan ziren 70eko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera garaturiko ildo armatuaren xede nagusiak. Hausturaren aldeko hautu hori KAS Alternatiba taktikoan gorpuztu zen.

Abagune horretan ekinbide armatua areagotu egin zuen ETAk. Honako kanpainak dira nabarmentzekoak:

- Administrazio frankistak Euskal Herrian ezarritako karguen eta alkate frankisten aurka buruturiko ekintzak. Kanpaina hura burutzea Franco hil aurretik erabaki zuen Erakundeak eta 75-79 urteen artean garatu zen: Galdakao, Oiartzun, Etxarri Aranatz, Olabarria, Itziar eta Bediaiko alkateak eta Zestoako alkate-ordea hilik eta Bilboko alkatesa zauritua izan ziren; Araluce Villar Gipuzkoako Diputazioko lehendakaria eta Augusto Unzueta Bizkaiko Diputazioko lehendakaria hilik ere, eskoltako poliziaekin batera.

- Guardia Zibila eta Polizia espainiarraren aurkako ekintza kanpaina iraunkorra hasi zen. Indar errepresibo horiek, frankismoan zehar euskal jendearen aurkako jazarpena inpunitate osoz burutu ostean, haien osaketa eta jitea ez zuten aldatu erregimenaren erreformarekin ere, eta okupazio indarren izaera mantentzen jarraitu zuten. Ekintza batzuk bereziki esanguratsuak izan ziren: 78an Gasteizen, Polizia espainiarraren furgonetaren metrailaketan 3 polizia hil ziren; 78an Donostiako Urgull tabernan 3 polizia hil ziren; 79an Itziarren, Izaro tabernan 3 guardia zibil hil ziren;

1980. urtean Zarautzen, Haizea tabernan 4 guardia zibil hil ziren; 80an Aia eta Ispasterreko segadetan 8 guardia zibil hil ziren; 1982an Oleretan patruila baten metrailaketan 4 polizia hil ziren.

- 1978tik aurrera, Espainiako bihotzean, Madrilan, Armadaren goi-karguen aurka ekintzak burutu ziren. Lehen erasoan, 78ko uztailan Juan Sanchez Ramos brigada jenerala eta Juan Perez Rodriguez teniente koronela hil zituen ETAk.

- Indar okupatzaileen salatarien aurkako ekintzak, horietako asko erregimen frankistaren informazio eta kolaborazio sareetako kide izandakoen aurka bideratuak. ETAk oro har 161 ekintza burutu zituen fronte horretan, 103 kolaboratzaile hilez.

- Ikurrinaren defentsan buruturiko kanpaina, lehergailuz babestutako ikurrinak jarritz, ikur hori oraindik lege-kanpokoaren zenean.

- 1977ko Espainiako hauteskundearen aurkako ofentsiba (gau berean 30 ekintza burutuz) eta 1978ko Espainiako Konstituzio erreferendumen inguruan buruturiko ekintzak.

Ahalmen operatiboan eta prestakuntza militarrean ETAk lortutako aurrerapenak ondorio zuzenak izan zituzten egindako ekintzetan, 1975eko eta 1982ko urteen artean 800 ekintza armatu baino gehiago burutu baitzituen: 1975ean lehen aldiz lehergailu bat urrutiko agintearen bidez eztandarazi zen Guardia Zibila ibilgailu bat igarotzean; 1975ean lehen aldiz Guardia Zibila kaserna bat armez metrailatu zen; 1982tik aurrera granadak, bomba-autoak eta bomba-lapak erabiltzen hasi ginen.

Egindako borroka latza izan arren, ez genuen lortu haustura demokratikoa eragitea, eta Espainiako erreforma prozesutik eratorritako egiturak ezartzen hasi ziren, bereziki 1981eko Estatu auto-kolpearen eta 82an PSOE Gubernu espainiarrera iritsi ostean. Horrek guztiak erreforma egonkortu eta errepresioa areagotu egin zuen (ZEN plana, GAL).

Hortaz, autodeterminazio eskubidearen onarpenari zegokionez funtsezko jokoa arauak aldatu ez zirela ulertu genuenez, sasi-demokrazia espainiarraren baitan ere borroka armatuarekin jarraitzea erabaki genuen. Izan ere, ETArek borroka armatua zen Espainiako proiektua erabat normalizatzea ekiditen zuen faktore erabakigarria eta testuinguru hartan euskal independentismoaren asimilazioa ekidin zezakeena.

Erakundearen
garapenari
jarritako oinarri
sendoei esker,
ETAk gaitasun
militar eta
logistikoari
dagokionez
maila oso altua
lortu zuen

Ez zen hautu erraza izan: batetik, erreforma ezarri izanak egiazko aldaketa baterako itxaropen asko zapuztu zituelako, eta nolabaiteko porrot horretatik abiatu behar ginen berriro; bestetik, ordura arte ETaren borrokarekin bat egin zuten herri sektore batzuek zilegitasuna kendu zigutelako ustezko demokraziaren baitan jarduera armatuarekin jarraitzeko, eta horrek aldaketa politiko eta sozialaren aldeko herri blokea ahuldu egiten zuen.

Ordea, ETaren ahalmenak eta Ezker Abertzalearen inguruan eratutako herri mugimendu askatzaileak urte haietan erakutsitako borroka gaitasunak bide horretan aurrera egiteko nahikoa oinarri zegoela erakusten zuten.

Besteak beste, Lemoizen zentral nuklearraren inposizioaren aurka herriak irabazitako bataila aukera horiek hauspotzeko baliagarria izan zen. ETaren ekinbideak ekarpen erabakigarria egin zuen herri garaipen horretarako (186 ekintza burutuz zentralaren aurkako kanpainan, tartean Jose Maria Ryan zentralerako injineru-burua bahitu eta astebeteko epean hilez 1981an eta Anjel Pascual zentralerako proiektu zuzendaria hilez 1982an). Lemoizek borroka armatuaren eraginkortasuna baieztatu zuen herri sektore askoren begietara, eta borroka molde guztien osagarritasunaren printzipioan oinarrituriko planteamenduari baliagarritasuna eman zion.

Negoiazioaren aldeko indar metaketa

Estrategia politiko-militarraren beharra bere egiten zuten KAS Blokeko indarrekin batera, Euskal Herriaren eskubide demokratikoen aldeko indar metaketa politiko, sozial eta armatuaren ekinbide baten alde egin zen, higadura horren bidez Espainiako Estatua negoziazio politiko batera behartzeko. 80ko hamarkadako ETaren jarduerak zio horri erantzuten zion nagusiki.

Erakundearen garapenari jarritako oinarri sendoei esker, ETAk gaitasun militar eta logistikoari dagokionez maila oso altua lortu zuen, eta horrek Espainiako egiturak iraunkorki kolpatzea ahalbidetu zion. Estatuko botere faktikoen aurka bideratu zituen bere ekintzak ETAk, nagusiki Armadaren, Guardia Zibilaren, botere ekonomikoaren eta polizia indarren aurka:

- Espainiako armadako goi-karguen aurka, bereziki Madrilen, buruturiko ekintzek, ETaren ekinbidearen izaera selekti-

boa adierazteaz gain, Estatua ezegonkortzeko Erakundeak zeukan ahalmenaren neurria ematen zuten. Besteren artean: Victor Lago jenerala 1982an, Quintana Lacaci teniente-jenerala 1984an; 84an baita Roson jenerala; 1985ean Fausto Escrigas almiranteordea; Colon de Carvajal almiranteordea 1986an; edo Defentsa Ministerioaren egoitzaren aurkako eraso 86an, 12 granada jaurtiz.

- Ohiko presio armatu iraunkorrek batera, Guardia Zibilaren aurka ekintza handiak burutu ziren bonba-autoak erabiliz. Esaterako: 86an Madrilen autobus militarren aurkako bi erasotan 17 guardia zibil hil ziren; 87an Madrilen Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren egoitzari eraso zitzaion; 87an Zaragozan Guardia Zibilaren kaserna suntsitu zen, 5 guardia zibil eta haien 6 senide hilez.

- Espainiako Poliziaren aurka etengabeko ekintza dinamika mantendu zen Euskal Herrian. Ekintza horiek euskal herritarren defentsaren zentzua ere bazuten, polizia espainiarrek euskal jendearen aurka egunerokoan burutzen zuten jazarpen itogarriari erantzuna ziren-eta.

- Espainiako botere judizialaren aurkako ekintza selektiboak burutu ziren, Madrilen, Euskal Herriaren aurkako jazarpenean bereziki nabarmendutako erakundearen aurka: 86an Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko presidentearen autoari granadaz eraso zitzaion; 89an Carmen Tagle Auzitegi Nazionalerako fiskal ezaguna tiroz hil zuen ETAk.

- 1984-86 urteen artean, GALEko 4 kide hil zituen Erakundeak haien aurka egindako ekintzetan.

- Espainiako interes turistikoaren aurkako kanpainari ekin zitzaion 1985etik aurrera, eta ia urtero errepikatuko ziren, hainbat ekintza burutuz Espainiako Estatuko eremu turistikoetan. Fronte horretan 146 ekintza burutu zituen ETAk bere ekinbide armatu osoan zehar.

- Helburu ekonomikoekin buruturiko baliaketa ekintzak ere ugaritu egin ziren (12 arrastatze 80ko hamarkadan zehar). Diego de Prado Colon y Carvajal oligarkarena 1983an (73 egun) eta Emiliano Revillarena 1988an (249 egun) izan ziren era honetako ekintza handienak.

- Frantziako Estatuaren interes ekonomikoaren aurkako kanpaina iraunkorra mantendu zen, euskal militanteen aurkako errepresioan eta estradizioetan zuen erantzukizua

na salatze asmoz: 205 ekintza burutu zituen ETAk fronte horretan, guztiak eraikinen edo kamioien aurkako lehegailuen bidez edota frantses matrikuladun kamioiak metrailatuz.

- Narkotrafiko sareen aurkako kanpaina armatua mantendu zen 80ko hamarkada osoan zehar eta 90eko hasierako urteetan, heroinaren sarrera masiboa inpunitatez eragiten ari zen sarraskiari erantzun eta droga-trafiko sareetan indar polizialek zuten inplikazio estua salatze. 29 trafikatzaille hilik suertatu ziren eta droga trafikarekin lotura zuten 53 taberna edo guneri eraso zitzairen lehegailuz, ETAk fronte horretan buruturiko 89 ekintzetan.

- Espainiako ondasun ekonomiko eta finantzieroen aurkako fronte, 82ko eta 84ko urteen artean bankuen aurkako kanpaina burutu zen, 117 bulegoren kontrako ekintzekin. Eta 1985ean, Madrilén, Ricardo Tejero Espainiako Banco Centraleko Zuzendari Nagusia hil zen bere aurkako ekintzan.

Erabilitako moldeei dagokionez, ETArekin ekinbideak zenbait berrikuntza barneratu zituen: bonba-lapa eta bonba-autoen erabilerak orokorrago egin zen, eta horrek ETAr ekintza handiagoak egiteko aukera eman zion; 87tik aurrera ETAk ekoiztutako JOTAKE granadak, bonba-paketeak eta bonba-gutunak erabiltzen hasi ginen.

Testuinguru horretan ETArekin ekinbide armatuan inoiz izan den akatsik eta ezbeharrak handiena jazo zen, Bartzelonako Hipercor merkatalgunean ezarritako bonba-autoaren ezteandak 21 herritarren heriotza eragin zuenean. Ohi zuen bezala ETAk lehegailuaren kokalekuaren berri hainbatetan eman arren, arduradun polizial eta Gobernuak eraikina ez husteko erabakia hartu zuten. Ekintza horren ondorioek itzal luzea utzi zuten, eragindako itzulerarik gabeko kalte humano eta samin guztiaz gain, ETArekin borroka armatuaren ezaugarriak buruzko zalantzak piztu zituelako herritar askoren artean, eta horrek hanttu egin zuen molde horrekiko arbuioa. ETAk bere ardura erabat onartu eta herriaren aurrean zegoen autokritika egiteak ere ezin zituen kalte negatibo horiek guztiak arindu.

Ekinbide armatu oso gogorreko hamarkada horren ostean (1982aren eta 1989aren artean ETAk 827 ekintza burutu zituen) iritsi zen Aljerreko prozesua, ETA eta Espainiako Estatuko ordezkarien arteko negoziazio mahaia osatu zenean, urtetan

zehar garaturiko elkarrizketa eta kontaktuen gauzatze gisa. Ezker Abertzalearen tzat, ordura arte garaturiko indar metaketa eta presio dinamika baten gailurra markatu zuen prozesu hark.

Aljerreko negoziazio mahaiaren hausturarekin su-etena amaitu ostean, ETAk ez zuen bere ekinbidearen muina aldatu, eta ildo armatuaren presioaren bidez Estatuarekin negoziazio prozesua Aljerren bertan behera utzitako puntuan berrartzeko ahaleginean abiatu zen berriro. 90-92 aldian egindako kanpaina militarrek asmo horri erantzuten zion, artean, Espainiako ordezkariarekin elkarrizketak berrartzeko aukerei buruzko proposamen, kontaktu eta espekulazioak etengabeak zirelarik.

Aljer osteko ekinbide armatuan honako ekintzak nabarmentzen dira:

- Espainiako Estatuko goi-karguen aurkako ekintza batzuk burutu ziren, esangura berezia zutenak: 89an eta 90ean zehar bonba-gutunak igorri zitzaizkien Julen Elgorriaga Gobernu delegatuari, Jose Barrionuevo eta Jose Luis Corcuera barne ministroei, Mugica-Herzog justizia ministroari; 92an, Valentzian, Manuel Broseta Estatuko Kontseiluko kidea hil zuen ETAk.

- Espainiako Armadako, Guardia Zibilako eta Poliziako kideen aurka Euskal Herrian ekintza armatu ugari egiten jarraitu zen, baina haien aurkako eraso handienak Katalunian eta Espainiako Estatuan zehar burutu ziren. Besteak beste: 90ean Sabadellen Espainiako Poliziaren furgoiaren aurkako ekintzan 6 polizia hil ziren; 91n Vic-en Guardia zibilaren kaserna suntsitu zuen erasoan 2 guardia zibil eta haien 7 senide hil ziren; 92an Madrilén, Armadaren ibilgailu baten aurkako ekintzan Armadako 6 kide hil ziren.

- Espetxe frontean zenbait ekintza burutu ziren gogortzen hasia zen dispertsio politikari erantzuteko: Herrera de la Mancha, Alcala-Meco, Salto del Negro, Murtzia, Ceuta eta Sevilla espetxeetako kartzelarien aurka ekin zen bonba-gutunak igorri; 91n Malagako espetxearen egoitza nagusiak suntsituak izan ziren bonba-auto batekin; 90an Donostian Angel Mota kartzelaria hil zen haren aurka armaz buruturiko ekintzan.

- Nazioartean, Espainiako interes diplomatiko, militar eta ekonomikoen aurkako ekintzak burutu ziren Holandan (4), Italian (21), Ingalaterran (1) eta Alemanian (3).

- Leitzarango autobiaren gatazkan esku hartuz kanpaina armatua egin zuen



Erakundeak, oso modu neurtuan, 10 ekin-tza burutuz gatazka hori elkarriketa bidez bideratua izan zen arte. Horietako ekintza batean Jose Edmundo Casañ Ferrer auto-biaren eraikuntza lanetan zebilen enpresa-ko delegatu-ordea hil zuen ETAk (1991ko martxoan).

1992ko martxoan Bidarten Erakundearen Zuzendaritza erori zenean, generaman ildoak eta ordura arte indarrean mantendu-tako eskemak kolpe handia jaso zuten. Horrek ildoak eraberritzearen beharra adie-razi zion ETARI. Estrategia politiko-militarra-ren nolakotasunari buruzko gogoeta sako-nean murgildu zen Erakundea, bere berre-gituraketari ekitearekin batera.

Bien bitartean, aurreko urteetan baino maila apalagoan, ekintzak burutzen jarraitu zuen ETAk, irtenbide demokratiko bat izan artean gatazka armatuak jarraituko zuela adieraziz. Besteak beste: 93an Madrilen armadako ibilgailuaren aurkako ekintzan 6 ofizial-buru hil ziren; 93an Madrilen Dionisio Herrero dibisio-jenerala hil zen; 94an Madrilen, Juan Jose Hernandez Defentsa Ministerioako Institutioetarako Zuzendari Orokorra eta Francisco Veguillas Defentsa Politikarako Zuzendari Orokorra hilak izan ziren.

KAS Alternatibatik Alternatiba Demokra-tikora

1994-95erako borroka planteamendu oro-korra aldatu egin zen gatazkaren errealita-te berrira egokitzeke. Batetik, Ajuria Eneko ituneko indarren apustua zapuztu behar zen irtenbide polizialaren ameskeria oro indargabetzeko eta konponbidea edukiz betetzeko; bestetik, negoziazioa ardatz zuen estrategiatik nazio eraikuntza eta herriari hitza ematea ardatz zituen estrate-giara egin zen jauzi. Borroka armatuaren egitekoa ETA eta Espainiako Estatuaren arteko negoziazio politikoa behartzera baino gehiago, Euskal Herrian prozesu demokratiko bat egikaritzeko agertokiak sortzera bideratu zen.

Paradigma aldaketa horrek ekinbide armatuan ondorio sakonak izan zituen, horrek definitu baitzuen ondorengo aroko ETAREN ildoak:

- Ekintzen izaera selektiboa zaintzeko ahalegin berezia egin zen. Ekintza kopuru txikiagoa burutu arren, ekintzen eragin poli-tikoa biderkatu zen, kopuruari baino alde kualitatiboari eman baitzitzaion garrantzia: Aznar PPko presidentearen aurkako ekin-

tza Madrilen 1995ean; Espainiako erregea-ren aurkako ekintza saiakera Mallorcan 1995ean; Fernando Mugica Herzog PSOeko buruaren aurkako ekintza Donostian 96an; Tomas y Valiente Auzitegi Konstituzionaleko presidente ohi eta Estatu Kontseiluko kidearen aurkakoa Madrilen 96an; Rafael Martinez Emperador Auzitegi Goreneko epailearen aurkakoa Madrilen 1997an.

- Arduradun politikoen aurkako frontea ireki zen, PP eta PSOE estatu-alderdien goi-karguen aurka hasiera batean. Izan ere, 90ko hamarkadarako, behin espainiar erreformaren prozesu guztia ezarrita, eta espainiar demokraziaren eredia finkatuta, Espainiak bere ordezkari politikoak, apara-tu judiziala eta hedabideak ezarri zituen gatazkaren lehen lerroan, zanaketari eta errepresioari itxura demokratikoa eman nahian. Gregorio Ordoñez PPk Gipuzkoan zuen buruaren aurkako ekintzarekin abiatu zen ildo hori, eta 95-98 urteen artean PPko 7 hautetsi hil ziren ETAREN ekintzetan.

- Espainiako Armadaren, Guardia Zibilaren eta Espainiako Poliziaren aurkako ekintzak asko gutxitu ziren aurreko dinami-karekin alderatuta, baina fronte horretan ekiten jarraitu zen. Horien artean: 95ean Enrique Nieto polizia inspektore-buru tiroz hil zuen ETAk Donostian; 95ean Madrilen, Armadaren ibilgailu baten aurkako ekintzan Armadako 6 funtzionario hil ziren; 97an Madrilen, Jose Agustin Cuesta Abril teniente koronela hil zuen ETAk; edo Guardia Zibilaren kasernen aurka 19 eraso burutu ziren, gehienak granadak jaurtiz.

- Ertzaintzaren aurka ekintza selektiboak egiten hastea erabaki zen, soilik gatazkan modu oso nabarian inplikaturiko ertzainen aurka, gorputz polizial horrek Guardia Zibilaren eta Polizia espainiarraren lan errepresiboa osatuz enfrentamenduan zeu-kan inplikazio berriari erantzuteko. Joseba Goikoetxea (Bilbon 1993an) eta Montxo Doral (Irunen 1996an) ertzain-buruak hil ziren haien aurkako ekintzetan. 97ko aza-roan Ertzaintzaren aurkako ekintzak bertan behera utzi ziren, 98ko ekainean Ina Zeberio ETAKo gudaria hil zuten arte.

- Espetxe frontean ekintza esangura-tsuak burutu ziren euskal preso politikoen Euskal Herriratzearen alde irekitako kan-painaren baitan: 1996ko urtariletik, Jose Antonio Ortega Lara kartzelariak 532 egun egin zituen bahiturik; 97ko uztailen Miguel Angel Blanco PPko Ermuko hautetsia bahi-tua eta 48 ordutako epealdia beteta hila

izan zen (Espainiako Gobernuak ez zuen inolako keinurik egin Blancoren bizitza sal-batzeko eta itxikerian gotortu zen ekintza horrek sortutako sufrimenduari etekin politi-koa ateratzeko). 97ko azaroan kartzela fronteko ekintzak bertan behera utzi ziren dispartzioaren aurka euskal eragileek har-turiko konpromiso sendoak bultzatzeko.

- Helburu ekonomikoekin buruturiko bahi-ketak konfrontazio handi baten erdigunea izan ziren, Ajuria Eneko Paktuko alderdiek antolatutako dinamikei Ezker Abertzaleak kalean emandako erantzunaren ondorioz. Jose Maria Aldaia ugazabaren (342 egun) eta Cosme Delclaux oligarkaren (232 egun) bahiketak denboran hainbeste luzatu ziren indar polizialen presioak sortutako zailtasun tekniko eta operatiboengatik.

96eko ekainean, osatu berria zen PPren Gobernuari astebeteko ekintzen etenaldia-rekin gatazkaren irtenbiderako deia egin zitzaion.

1995etik aurrera ETAk lurrikara politikoak eragiteko izandako ahalmena eta Ezker Abertzaleak erakutsitako erresistentzia gai-tasunak indar-etsaien aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Tentsio handiko garaia izan zirenez, higadura urteak ere izan ziren askapen mugimenduarentzat, baina erro-nkari eutsi zitzaion, eta guztiarekin 1998rako egoera politiko berri baten oinarriak finka-tuak zeuden: Ezker Abertzalearen isola-mendu politika irauli egin zen eta konfron-tazioaren planoa “demokratak vs biolento-ak” dikotomiatik “Euskal Herria vs Espainia” dikotomiara igaro zen.

Lizarra-Garaziko mugarrria

Abiapuntu berri horretatik eratu zen Lizarra-Garaziko prozesua, eta ETAk lehen aldiz su-eten mugagabe bat iragarri zuen, 1998ko irailetik 1999ko abendura iraun zuena. Mugarri bat finkatu zuen ekimen horrek. Su-etena hautsi zuenean ere, eus-kal indarren arteko burujabetza prozesu horri oinarri sendoagoekin ahalik eta epe laburrenean jarraipena ematea zen ETAREN asmoa. Ikuspegi horren argitan ulertu behar da 2000. eta 2002. urteen artean garaturiko ofentsiba armatua:

- Arduradun politikoen aurkako kanpaina PP eta PSOeko kargu guztietara orokortu zen, bi alderdi horiek Euskal Herriaren aur-kako itun errepresibo berriak adostu zituz-tenean, itun horiek ondoren ezarritako sal-buespen egoeraren iturburua izan baitzi-ren, non milaka euskal herritar eskubide

politiko eta zibilik gabe geratu ziren. Alderdi horietako 13 ordezkari hil ziren haien aurka buruturiko 24 ekintzetan, besteak beste, Fernando Buesa PSOeko buruzagia, Juan Mari Jauregi PSOeko gobernadore zibil ohia, Ernest Lluch PSOeko ministro ohia, edo Manuel Gimenez Abad PPko Aragoiko Senataria.

- Jose Maria Aznar espainiar Gobernuako presidentearen aurkako hiru ekintza saiakera izan ziren 2001ean zehar, bere hegaldietan misilez burutu nahi izan zirenak.

- Botere judizialaren aurkako ekintzak ugaritu egin ziren, Estatuaren ofentsiba judizialari erantzun gisa: Jose Francisco Querol Tribunal Auzitegi Goreneko sail militarreko epaile-buru eta Armadako jenerala, Luis Portero Andaluziako fiskal nagusia eta Jose Maria Lidon epailea hil ziren ETaren ekintzetan.

- Espainiako indar armatuen aurkako ekintza batzuk burutu ziren, besteak beste: Pedro Antonio Blanco teniente koronela hilez Madrilén; Antonio Muñoz koronela hilez Sevillan; Justo Oreja Pedraza jenerala hilez Madrilén.

- Ertzaintzaren aurka ekintza gutxi batzuk egin ziren, indar polizial horren jarrera errepresiboari erantzunez: Mikel Uribe ertzain burua hil zuen ETak Leaburun, eta beste hiru ertzain hil ziren Hernanin eta Beasainen haien aurka egindako bi ekintzetan.

- Botere ekonomiko-finantzarioaren eta oligarkiaren guneen aurkako ekintza handiak burutu ziren, sektore horrek gatazkaren luzapenean zuen ardura salatzeko: Negurin 5 auto-bomba eztandarazi ziren eta Madrilén beste 5 helburu oligarkiko horien aurka baita ere.

ETak gaitasun militar handia erakutsi zuen, baina ekimen politikoarekiko oreka falta zegoen, Lizarra-Garaziko prozesuan beste bide bat posible zela irudikatu zuten herri sektore asko borroka armatuaren beharrezkotasuna zalantzan jartzen hasi baitziren. Hein berean, 2002ko amaieratik Ezker Abertzalearen aurkako ilegalizazio politika gogortu zenean, ETak ez zuen aukerarik izan abagune garrantzitsu hori ekintza armatuen kanpainekin markatzeko eta horrek ekinbide armatuaren eraginkortasuna auzitan jartzea ekarri zuen.

Edonola ere, ETak egoera osoki baldintzatzen jarraitzen zuen eta ekimen batzuek eragin politiko berezia izan zuten, hala nola, 2004ko urtariletik aurrera Katalunian

ekintza armaturik ez burutzeko ETaren erabakia (herrien arteko begirunea, elkartasuna eta injerentziarik ezaren printzipioetan oinarrituz).

Anoetatik behin betiko irtenbidea egituratzen

2004ko M11n Madrilén gertaturiko atentatu jihadistetan Espainiako Gobernuak ETaren egiletzari buruzko teorien tematu izanak ondorio sakonak izan zituen Euskal Herrian. Ondoren aurreikusi gabeko aldatketak gertatu ziren egoera politikoan, besteak beste Espainiako Gobernu aldaketa-ekin. Erakundeak hausnarketa prozesu bat burutu zuen bere ekinbidea egoera berrira egokitzeko: gatazka konpontzeko proposamen politikoa berritzearekin batera, ekintza armatuen kanpaina eta molde batzuk bertan-behera uztea eta ildo armatua doitzera erabaki zuen. 2004-2006 urteetan garaturiko ekinbideak berezitasun horiek barneratu zituen:

- Lehergailu txikien bidezko ekintzak lehenetsi ziren, kalte handiak ekiditeko, gehienbat Espainiako administrazioaren eraikinen eta interes ekonomiko eta turistikoaren aurka.

- Indar sinbolikoa zuten ekintza-moldeak erabili ziren: Madrid inguratzen duten errepideetan lehergailuak ezarri bi aldiz sorturiko kolapsoa; Espainiako Konstituzioaren egunean bi urtez jarraian Espainiako leku erreferentzialetan lehergailuak ezarri buruturiko ekintzak; Madrilén Joko Olinpikoetarako hautagaitzaren izarra zen estadio olinpikoaren aurka eztandarazitako bomba-autoa.

- Euskal Herritik kanpo, Espainiako Estatuan zehar ekintzak egiteari garrantzia berezia eman zitzaion, lehergailuz 47 ekintza burutuz puntu ezberdinetan.

- Ekintza armatuen fronte batzuk itxi ziren: 2005eko ekainean hautetsi eta kargu politikoek aurkako frontea itxi zen, Espainiako Kongresuak ETarekin elkarriketak burutzeko aukera onartu ostean; 2005eko hastapenetik, ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziazio bidea ireki zenetik, ekintzetan hildakorik ez eragiteko erabakia hartu zen.

ETaren garai hartako ildoaren xede nagusia Euskal Herrian burutu beharreko prozesu demokratikoa elikatzea eta gatazkaren konponbiderako elkarriketentzat giro aproposa sortzea izan zen. Horrela iritsi

**Aznar Espainiako
Gobernuko
presidentearen
aurkako hiru
ekintza saiakera
izan ziren
2001ean zehar,
bere hegaldietan
misilez burutu
nahi izan zirenak**

zen 2006ko martxoko su-eten iraunkor eta mugagabea. Ondoren, Espainiako Gobernuak akordioen edukia etengabe urratzen zuenez, ETAk erantzun egingo zuela ohartarazi zuen, 2006ko abenduan gauzatu zena Barajas aireportuko T4an furgoneta-bonbaz buruturiko erantzun ekintza handiarekin. Gertaera horren ostetik, su-etena indarrena segitzeko apustua egin zen. Halere, Gobernuarekin egindako elkar-irizketa saio berriak ez zuen aurrera egin.

2007ko ekainean su-etena hautsi zuenetik, ETAk zailtasunak izan zituen eszenatoki hari egokituriko ekinbide armatu eraginkor bat garatzeko, eta borroka armatuaren emankortasun politikoari buruzko kezka oso hedatua zegoen, ekintza batzuek bere ahalmena agerian utzi zuten arren:

- 2007ko abenduan, Capbretonen, bere historian lehen aldiz, Frantziako Estatuan euskal militanteen aurkako borrokan ziharduten bi guardia zibil hil zituen ETAk.

- 2008ko martxoan, Arrasaten, Isaias Carrasco PSOeko militantea eta hautetsi ohia hil zuen tiroz, Espainiako hauteskunde kanpainaren suspentsioa eraginez.

- Abiadura Handiko Trenaren aurkako kanpaina ireki zuen ETAk, 5 ekintza burutuz, horietako batean AHTren eraikuntzan inplikaturiko Inazio Uria enpresaria hilez Azpeitian.

- Guardia Zibilaren aurka eraso handiak egin ziren, Durango, Legutio, Calahorra eta Burgosekako kasernak oso kaltetuak geratuz bonba-autoen ez tandarengatik. 2009ko uztailan, Mallorcan, Guardia Zibilaren aurkako bere ibilbideko azken ekintza egin zuen ETAk. Orotara, ETAk 365 ekintza egin ditu Guardia Zibilaren aurka, 186 guardia zibil hilez.

- 2008ko irailean Santoñan, Espainiako Armadaren eraikinaren aurka bonba-autoz buruturiko eraso (Luis Conde de la Cruz militarra hil zen bertan) Armadaren aurka ETAk egindako azkena izan zen. Orotara, 101 militar (tartean almirante bat, 2 almirante-orde, 12 jeneral, 31 koronel, 7 kapitain eta 11 komandante) eta Armadako 11 funtzionario zibil hil dira ETAk Armadaren aurka egindako 147 ekintzetan.

- 2009ko ekainean Eduardo Puelles informazio zerbitzuetako inspektorea hil zuen ekintzarekin, Polizia espainiarraren aurkako bere azken eraso egin zuen ETAk. Orotara, ETAk 215 ekintza egin ditu Espainiako Poliziaren aurka, 139 espainiar polizia hilez.

2009ko abuztuan interes turistikoaren aurka buruturiko hiru ekintzak ETAk bere ekinbide armatuan zehar egindako azkenak izan ziren. Zehazki, 2009ko abuztuaren 9ko 18:00etan ETAk bere azken lehergailua ez tandarazi zuen Mallorca-ko Plaza Mayor-eko galerietan. Orotara, azken horrekin, 2.604 ekintza armatu aldarrikatu zituen ETAk ordura arte, eta horietan 758 pertsona hil ziren. Horiez gain, bere gain hartu gabe zituen beste bi ekintza onartu ditu ETAk bere amaieran. 1981ean Tolosan hiru herritar hil zituen ETAk poliziak zirelakoan, eta Madrilan, 1974ko irailean, Correo kalean lehergailu bat ez tandarazi zuen kafetegi batean, polizia indarren kontra aurreikusitako ekintza batean. Hildako 13 pertsonen artean, ordea, soilik bik zuten zerikusia ondoko Direccion General de Seguridad (DGS) zelakoarekin.

ETAk egindako azken ekintzek (Puelles, Burgos, Mallorca) erresistentziaren ikuspegitik borroka armatuari eusteko eta urte luzez Espainiako Estatua kolpatzen jarraitzeko gaitasuna zeukala adierazten zuten. Aitzitik, hamarkadetan zehar askapen borrokan aurrerakadak eragiteko funtzioa bete ostean, ETArek jarduera armatuak galdua zeukan euskal autodeterminazioaren bidean agertoki politiko berriak irekitzeko ahalmena. Agortze zantzu horien aurrean, eta prozesua blokeo egoera arriskutsuan sar ez zedin, borroka armatuaren amaierari buruzko gogoeta estrategikoa azkartu zen.

2010eko martxoan oraindik, ETAk kideak eta Frantziako Poliziaren arteko ustekabeko enfrentamendu batean, Jean Serge Nerin polizia hil zen ETAk kideek egindako tiroen ondorioz.

Ordurako, bere amaieraren bide-orrian lehen urratsak gauzatzen hasia zen ETA: 2010eko hasieratik ekintzarik ez burutzeko erabakia hartu zuen aro berria bultzatzeko; 2011ko urtarilean nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko zuen su-eten iraunkor eta orokorra iragarri zuen; segidan iraultza-zerge eskariak bertan behera utzi izana jakinarazi zien ugazaben elkarteet; 2011ko urriaren 20an jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki zuen.

Azkenik, 2017ko apirilaren 7an, kontrolpean zituen arma eta lehergailuak gizarte zibilaren esku utzi ostean, Euskadi Ta Askatasunak erakunde armagabea zela adierazi zuen.

2009ko abuztuan
interes turistikoaren
aurka buruturiko
hiru ekintzak,
ETAk egindako
azkenak izan
ziren. Azken
hoiekin, 2.604
ekintza armatu
aldarrikatu zituen
ETAk



ETAren adierazpena

Agur eta ohore eusko gudariei

Zapalkuntzari aurre egiteko jaio zen ETA, eta askatasunari bide emateko ekarpena egin nahi izan du beti. Hori izan da bere iparorratza, eta ETAren kidegoarentzat, eginahala. Zintzotasunez eta eskuzabaltasunez egindako eginahala. 36ko gerra ondoko diktaduraren errepresio basatiari eta ukapenari aurre egiteko adore handia erakutsi zuen Erakundea sortu zuen gazte taldeak. Gernikako bonbardaketak utzitako errautsen azpian burumakur zegoen oraindik Euskal Herria, hiltzorian, baina belaunaldi hark sortutako haize boladak etsipenaren errauts haiek harrotu zituen, eta estalia zegoen hausberoaren txinpartak piztu zuen berriro euskal erresistentzia. Euskal kontzientzia nazionala berpiztu izana zor diegu lehen belaunaldi haiei.

Ez ginen gerra bila joan, gerra etxe barrura ekarri ziguten, eta, zoritxarrez, euskaldunok armak hartze-
ra ikusi genuen behartuta gure burua. Sasetaren hurrengoak izan ziren ETako lehen militante armatuak. Telesforo Monzonek maisuki adierazi zuen moduan, atzoko eta gaurko gudariak bat-eginik gogo eta nahi berean, askatasun egarri. Berriro borrokari lotu ginen deblauki. ETari lotuak jarraitu dute lehen belaunaldi-
dietako askok, eta beste asko etorri dira ondoren, etenik izan gabe. Arazoak eta zatiketak gaindituz, ibil-
bide bakarra osatu du ETak, egitasmo askatzaile bati esker, baina baita bere kidegoaren entrega iraun-
korralari esker ere.

ETA Hego Euskal Herrian sortu zen, baina azkar asko Euskal Herri osoko kideak elkartu zituen, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere euskal kontzientzia berpizteko lehen kimuak loratu bait-
ziren, hegoaldeetik ihesi eta babes bila zetozen anai-arrebei aterpe ematen zitzaizen bitartean.

Zoritxarrez berriro ere, trantsizioa izenez ezagututako operazio politikoak gatazka termino demokrati-
ko hutsetara eramatea galarazi zuen. Euskal Herriaren zatiketa eta asimilazioa jarri zuten helburu bote-
re faktikoek. Euskal proiektu nazionala lurperatu nahi zuten. Ezkerreko abertzaleok aurre egin genion
asmo horri. Euskal erresistentziak gutxieneko egoera demokratiko bat erdiestea jarri zuen lehen helmu-
ga. Horrela, frankismoaren erreforma ez egonkortzeko borrokatzeaz gain, ETak konponbide ahalegina-
ri ekin dio behin eta berriz. Baina Euskal Herriaren nazio izaera eta euskal herritarren erabakitze-
ko eskubidea onartu beharrean, estatuak nahiago izan dute zapalkuntzari eustea errepresio estrategia behin eta
berriz elikatuz.

Hamarkada gehiegi iraun du enfrentamenduak, eta azken urteotan aurreko zikloa atzean utzi eta beste
bat zabaltzen saiatu gara, estatuak kontrako norabidean direnak eta bi egin badituzte ere. Egoera zinez
gogor horretan, berriro nabarmendu behar da ETAren kidegoak izandako ardura eta konpromisoa. Ezkerreko independentismoak egindako estrategia aldaketa ezinezkoa litzateke eusko gudarien heldu-
tasunik gabe. Euskal Herriak behar dituen bide berriak zabaldu ahal izateko erantzukizunez erantzun du.


Berriro ere militanteen lanari esker aurreratu ahal izan da jarritako erronketan. Adierazgarria izan zen,
esate baterako, armagabetzea burutu ahal izateko egindako lan eskerga, polizia indarren eta ezkutuko
zerbitzuen oztopo eta tranpa guztien gainetik. ETako kideek berriz erakutsi zuten lan eta sakrifizio gai-
tasuna Euskal Herriarentzat onuragarria zen egoera bat lortzeko aukera sortu zenean. Diziiplina eta
erantzukizun berberarekin ekin dio militantziak ETAren amaierari buruzko eztabaidari. Portaera eredu-
garria izan du, betiere lehentasuna askapen prozesuan jarrita.

Militanteen sakrifizioa izugarria izan da, gogorra bezain oparoa. Gure omenaldirik handiena borrokan
erori diren kideei. Txabi Etxebarrieta izan zen polizia indarrekin enfrentamenduan hildako lehen ETako
gudaria. Xabier Rey izan da azken hildakoa, kartzela politika kriminalaren ondorioz. Bidean eroritako
guztiak ditugu gogoan eta bihotzean.

Halaxe ditugu isilean joan direnak ere. Arlo eta eremu askotan lan egin duten militanteak. Apaltasunez
eta arduratsu aritu ziren. Ez dira dagoeneko gurekin. Ezin izan ditugu ETako kideetat publikoki hartu,
inor eta ezer ez kaltetzeko, baina ezinbestekoak izan dira bai erakundearentzat bai askapen prozesua-
rentzat zein herri mugimenduarentzat. Agur eta ohore, Isabel, Joxi, Joxean, Joxemi, Josu, Txato,
Lourdes... ETako gudariak.

Ezin aipatu gabe utzi urte luzez kartzela eta erbestea pairatu dituztenak, oraindik pairatzen ari direnak.
Euskal Herriaren aldeko konpromisoaren lekuko argiena dira. Herriarenganako maitasunagatik dena
emateko prest izan diren gizon-emakumeak. Beti zaituztegu gogoan.

Milaka izan dira ETAn edo ETarekin aritu diren euskal herritarrak, herritik sortutako borrokalariak.
Guztiei zor diegu honaino iritsi izana. Guztiei zor diegu askatasunaren atea zabaltzeko egindako ahale-
gina. Aurrerantzean ere Euskal Herriaren aldeko borrokan lanean segituko dute. Doakie guztiei Euskadi
Ta Askatasunaren errekonozimendua.



ETAk Euskal Herriari

Eragindako kalteari buruzko adierazpena

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, bere ibilbide armatuan eragindako kaltea onartu nahi du adierazpen honen bitartez, eta bere konpromisoa azaldu gatazkaren ondorioak behin betiko atzean uzteko eta halakorik berriro ez errepikatzeke.

Hamarkadotan sufrimendu asko egon da gure herrian: hildakoak, zaurituak, torturatuak, bahituak edo erbestera joan behar izan dutenak. Gehiegizko sufrikarioa. Eta ETAk samin horretan izandako ardura zuzena onartzen du, eta halakorik inoiz ez zuela gertatu behar edo ez zela denboran hainbeste luzatu behar adierazi nahi du, gatazka politiko eta historikoak konponbide demokratiko bidezkoa aspaldi behar zuen-eta. Izan ere, ETA jaio aurretik samina zen nagusi gure herrian, eta ETAk borroka armatua utzi ostean ere oinazeak segitzen du. Gernikako bonbardaketaren ondorengo belaunaldiok bortxa eta arrangura hura heredatu genuen, eta guri dagokigu ondorengo belaunaldiak oso bestelako etorkizun bat jasotzea.

Kontziente gara borroka armatuaren garai luze honetan samin handia eragin dugula. Konponbiderik ez duen kalte asko ere. ETArekin ekintzek eragindako hildako, zauritu eta biktimei, gatazkaren ondorioz kaltetuak izan diren heinean, errespetua agertu nahi diegu. Zinez sentitzen dugu.

Akatsen ondorioz edo akats izan diren erabakiak hartu izanaren ondorioz, gatazkan parte-hartze zuzenik ez zuten biktimak ere eragin ditu ETAk, bai Euskal Herrian bai Euskal Herrikan kanpo.

Badakigu, borroka armatuaren mota guztietako beharrek bultzatuta, inolako erantzukizunik ez zuten hainbat herritar kaltetzera eramanez gaituela gure jardunak. Atzerabiderik ez duten kalte larriak ere eragin ditugu herritarren artean. Haiei eta haien senideei barkamena eskatzen diegu. Hitz hauek ez dute gertatutakoa konponduko, ez eta mina arinduko ere. Begirunez diogu, berriro ere inolako atsekaberik sortu nahi gabe.

Uleritzen dugu askok guk egindakoa onartezina eta bidegabea izan dela ustea eta adieraztea, eta errespetatzen dugu, inori ezin baitzaio behartu pentsatu edo sentitzen ez duena esatera. Estatuaren indarrek zein hauekin batera jardun duten indar autonomistek egindako asko eta asko ere, legearen mozorroa erabili arren, erabat injustua izan da euskal herritar askorentzat, eta horiek ere ez dute umiliaziorik merezi. Bidezko kalte txalogarriak izan dela ulertu beharko genuke bestela. ETAk, ordea, beste jarrera bat du: oxala ez balitz halako ezer inoiz gertatu. Oxala askatasuna eta bakea aspaldi errotu izan balira Euskal Herrian.

Inork ezin du iragana aldatu, baina iragan hori desitxuratzea edo zati batzuk ezkutatzeko saiatzeko litzateke oraintxe etorkizunari begira egin ahal den gauzarik okerrenetakoa.

Onartu dezagun guztiok izandako ardura eta eragindako mina. Ikuspuntu eta sentipen berberak ez izan arren, denok besteek ere izandako sufrimendua aitortu behar dugu, begirunez. Horixe adierazi nahi du ETAk.

Etorkizunari begira, hain zuzen ere, berradiskidetzea da Euskal Herrian egin beharreko lanetako bat, maila askotan zintzotasunez herritarren artean jadanik egiten ari dena. Beharrezko ariketa da egia modu eraikitzailean azaleratzeko, zauriak sendatzeko eta halako sufrikariorik berriro gerta ez dadin bermeak eraikitzeke. Gatazka politikoari konponbide demokratikoa emanaz Euskal Herrian bakea eraiki eta askatasuna lortu ahalko dira. Gernikako sugarrak betirako amatzeko.



ETAk etxekoei eta lagune

ETAk bere desegitea iragartzeko eta azaltzeko egingo diren ekimenetarako ondoko testua utzi du prestatuta. Testu hau ezkerreko militante independentistei, bidean eroritako gudarien senideei eta, oro har, ETaren ondokoei dago zuzendua.

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, bere ibilbideari amaiera eman dio. Askapen prozesuaren garapenari eta datozen urteetako erronkari erantzunez hartutako erabakia da, kidegoak eztabaida arduratsu eta sakon baten ondorioz hartutako erabaki historikoa. Euskal Herriari zuzendu gatzaizkio gure azken adierazpenean, baina etxekoei ere zuzendu nahi gatzaizkizue. Zuei guztioi.

Lehen-lehenik, nola ez, borrokan erori diren burkideak ekarri nahi ditugu gogora, baita kartzelan eta erbestean dauden lagunak ere. Haien senide eta lagunentzat gure besarkadarik handiena. Agur eta ohore, eusko gudariak. Maite zaituztegu. Zuen oroitzapenak eta ereduak ematen digute indarra. Herriarenganako maitasuna eta konpromisoa, gainerako kideekiko elkartasuna eta zintzotasuna, borrokarekiko eskuzabaltasuna eta adorea, bizitzeko indarra eta alaitasuna... balore sakon eta eder horiek denak erakutsi dizkiguten anai-arrebak beti izango ditugu bihotzean. Zorretan gaude, eta gure benetako omenaldia Euskal Herria askatzea izango da.

Bidea gogorra izan da, oso gogorra, zalantzarik ez; baina baita ederra eta oparoa ere. Zapalkuntzari aurre egiteko eta askatasunaren bidea urratzeko jaio eta garatu zen ETA, eta guztien artean egitasmo askatzaile oso bat egituratzea lortu dugu hamarkadotan, askapen prozesu bat, askapen mugimendu bat.

Euskal Herriari begira egin du ETAk bere bidea. Gure herria hiltzorian zegoela jaio zen ETA, eta urteotan urratsak egiteko eta aukera politikoak sortzeko ahaleginean aritu da etenik gabe. Orain ere, Euskal Herria eta, euskal herri langilearen eta herri sektoreen mesedetan, bertan abiarazi beharreko fase historiko berria izan ditu ardatz. Horri erantzun nahi izan diogu azken erabakia hartzeko orduan ere.

Etorkizunari ekiteko ordua da. Epealdi bat itxi dugu, eta beste bati ekin behar diogu gogoz eta indarrez. Euskal Estatua osatzera eraman behar gaituen ziklo historikoa azkartzea izango da erronka, eta horretarako guztion ekarpena, lana eta borroka beharko dira. Zer esanik ez, gazte belaunaldiena.

Proiektu, prozesu eta mugimendu independentista eraberritu eta zabal bat osatu beharra dago, jendarteko aldagai eta beharrei erantzuteko gai izango dena, hautabide independentista erraztuko dituen proposamen eta adostasun taktikoekin bateragarria izango dena eta gatazkaren muin politikoari zein ondorioei konponbidea emateko indar harreman egokia ahalbidetuko duena.

Ezker Abertzaleak duen onena jarri behar du lan horretan: bere kapital humanoa. Zaindu dezagun hori, zaindu elkar, goxo eta zintzo burkideekin, goxo eta zintzo herriarekin. Gu guztion konpromisoa beharko du fase berriak. Barne kohesioari eutsi eta gero eta sektore gehiagorekin lan egiteko gaitasuna landu. Ez dira oztopoak faltako, estatuek beren nagusitasun bidegabeari inposatzen segitu nahiko baitute.

Ekin diezaiozun, bada, emakume eta gizon aske osaturiko Euskal Herri libre bat lortzeko ibilbide luzearen fase erabakigarri honi. Izan zirelako gara, garelako izango dira. Gure konfiantza osoa duzue.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!
GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.

Euskal Herria irabazteko...

denok
eman

behar dugu
zerbait